

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Leintz Gatzaga



Aurkibidea

Udalerria: Leintz Gatzaga

Sarrera



Gipuzkoako hego-mendebaldeko muturrean dago, Araba eta Gipuzkoa arteko mugan. Leintz bailarako lehenengo herri hau Deba Garaiko eskualdean dago. Izan ere, bailarari izena ematen dion ibaiak, Debak, Leintz Gatzagako lurretan du jaiolekua. Historikoki Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatzari lotua ageri da. Iparraldetik Eskoriatzarekin muga du eta hegoaldetik Arabako herriak diren Legutio, Arrazua-Ubarrundia eta Barrundiarekin du muga. Bertako jarduera ekonomiko garrantzitsuena, gatzaren ekoizpena izan den arren, ikatzginak, errementariak eta beste zenbait ofizio ere baziren. Nekazal tradizioan oinarritutako herria dugu Leintz Gatzaga.

- **Biztanleak:** 272
- **Euskaldunak:** %79,2

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **17**
- Zintak: **27**
- Pasarteak: **206**
- Transkribatutakoak: **34**
- Audioak: **62**
- Bideoak: **19**

Proiektuak

- Deba Eskualdeko Ahotsak - Leintz Gatzaga
- Dialektologia-EHU
- Euskal Herriko Ahotsak
- Leintz bailarako ahozko ondarea
- Loramendi Euskara Elkarte

Hizlariak



Mari Carmen Arana



Matilde Arrese Aranburuzabala

Narciso Beitia Elkorobarrutia (1910-2014)

1910eko urriaren 29an jaio zen Astaisolon. Aita etxekoa eta ama Leintz Gatzagako Intxulintxa baserrikoa zen. Aitak bi ezkontzatan zazpi seme-alaba izan zituen, eta Narciso denetan gazteena zen. Gatzagako eskolan ibili zen Don Felix maisuarekin. Etxera ezkondu zen Barakaldoko Eugenia Beitiarekin. Iratiko basoetan lana egin zuen, erreka egurra garraiatzen zutela. Gero Eskoriatzako Forjas Vascasen egin zuen lan lanabesak egiten. Gerra hasi eta berehala, gorriekin harrapatu zuten eta lau hilabetez egon zen kartzelan. Gero nazionalen aldean borrokatu behar izan zuen. Gerra ostean lau urtez gatz lantegian egin zuen lan, eta beste zazpi urtez pinua sartzen.



Fermina Beitia Zabala (1929)

Olaun auzoko Dominaga baserrian jaio zen, hamar anai-arrebatatik laugarrena izanik. Aita bertakoa zen, eta ama berriz Eskoriatzako Marulanda auzoko Zurun baserrikoa. Zazpi urterekin hasi zen udaletxe gainean zegoen eskolan, eta gerra etenaren ondoren hamalau urtera arte jarraitu zuen. Gerran Dominagatik ez zen soldadurik pasatu, baina herriko hainbat jende egon zen bertan babestuta. Bizi guztia eman du bere jaiotetxean. Ganadu eta ardi asko zaindu izan dira Dominaga baserrian.



Emilio Beitialarrangoitia Beitialarrangoitia (1918)



Txarrantxategi baserrian jaio zen Emilio. Aita Txarrantxategikoa zen eta ama Galdamesen jaioa. Bost seme-alaba izan zituzten. Gatzagako eskolan ibili zen 12 urtetik 15 urtera arte, Don Felix maisuarekin. Arabako basoetan lanean zebilela ezagutu zuen bere emaztea izango zena, Orozkoko Irene Astobiza. Orozkon ezkondu ziren. Gasteizko Panificadorarentzako sutegurra prestatzen zuten, basolangile ibili zenean. Ikazkintzan ere jardun zen aldi batean. Bestela beti etxean egin du lan. Ganadu asko eta artalde handia zaintzen, baita noizbehinka idiekin garraio lanetan ere.

Urbano Bengoa Arkauz (1915-2014)



Olaunerdikoan jaio zen, sei anai-arrebatatik hirugarrena. Ama bertakoa, eta aita, berriz, Eskoriatzako Gaztañadi auzoko Porrena baserrikoa zen. Gatzagan hasi zen eskolan sei urterekin. Hamaika urte zituela aita hil eta eskolok bukatu zitzaizkion. Harrezkero etxean egon zen, Arabako Olleriasen egin zituen sei hilabeteak kenduta; hamasei urterekin artzaintza ikastera joanda morroi egon zen epea. Gerran hiru urtez borrokatu zen nazionalekin hainbat frontetan. Anaia bat galdu zuen Asturiasekoan. Eskoriatzako Bolibar auzoko Pagaldai baserriko Petra Pagaldairekin ezkondu eta hamar seme-alaba izan zituzten.

Felipa Saturnina Berrostejeta Goiburu Satur (1912)

Aita eta ama Gatzagakoak zituen. Bera, Errosario kaleko 9.ean jaio eta bizi izan da. Jostuna, 16 urte zituela Markinako familia batekin haien umeak zaintzen egin zuen lan bi urte inguruan Bartzelonan. Gerra garaian asko sufritu zuen bere familiak: bera kartzelan egon zen, baita bere gurasoak eta anaia ere, etxea galdu zuten...

Benedikto Elkorobarrutia Lamarain (1936)



Intxulintxa baserrian jaio zen. Aita etxekoa eta ama Leintz Gatzagako Oliakua baserrikoak ziren. Zazpi seme-alaba izan zituzten. Zazpi urtetik hamalau urtera arte Leintz Gatzagako eskolan ikasi zuen, Antonio Durana maisu gasteiztarrarekin. Eliz mutil ere jardun zuen hamalau urtera arte. Pilar kaleko Mari Karmen Aranarekin ezkondu zen eta hiru alaba izan dituzte. Eskoriatzako Illun lantegian hamabost urtetik hogeita bat urtera arte egin zuen lan, koilara eta lapikoak leuntzen. Sarraila lanetan Eskoriatzako Zubizarreta lantegian beste sei urtetan ibili zen, eta gero Fagorren hasi eta bertan jardun zuen jubilatuta arte.

Sabino Elkorobarrutia Lamarain (1932)



Intxulintxa baserrian jaio zen Sabino. Aita etxekoa eta ama Leintz Gatzagako Oliakoa baserrikoak ziren. Zazpi seme-alaba izan zituzten, Sabino zaharrena. Sei urtetik 14 urtera arte Leintz Gatzagako eskolan ikasi zuen, maisu arabarrekin. Eskoriatzako Marin auzoko Zabalegikoa baserriko Maritxurekin ezkondu eta bi seme izan dituzte. Leintz Gatzagako koroan abestu zuen ezkondu arte. Igeltsero lehenengo eta gero Ulgorren jubilatatu arte lan egin zuen.

Francisca Ibarzabal Bengoa (1937)

Olaun auzoko San Juan Zahar baserrian jaio zen. Aita bertakoa zuen eta ama Eskoriatzakoa.

Maria Letona (1938)



Eskoriatzako Marin auzoan jaio zen 1938an, Gerra Zibilaren urte ilunetan. Leintz-Gatzagako Intxulintxa baserrira ezkondu zen, eta oso gertutik ezagutu zuen kooperatiben mugimendua besteak beste.

Petra Pagalday Iñurrategi (1920-2012)



Eskoriatzako Bolibar auzoko Pagaldai baserrian jaio zen, hamaika anai-arrebatatik bosgarrena. Aita zen bertakoa eta ama, berriz, auzo bereko Jausoro baserrikoa. Sei urterekin Eskoriatzako eskola publikoan hasi zen ikasten, baina bere azken eskola urtea Bolibar auzoan eman zuen, eraiki berria izan zen auzo-eskolan. Hiru urtez egon zen neskame Bergarako etxe batean. Handik itzuli eta gero Aretxabaletan jostakintza ikasi zuen. 26 urterekin, Gatzagako Olaun Erdiko baserrira ezkondu zen, bertako Urbano Bengoarekin. Hamar seme-alaba izan zituzten.

Marcelina Plazaola Uribetxebarria (1924)

Kanparrena baserrian jaio zen, zazpi anai-arrebatatik bosgarrena. Aita bertakoa zen, eta ama berriz aramaioarra.



Zortzi urterekin hasi zen eskolan, udaletxe gainean zegoenean. Hamalau urtera arte ibili zen arren, ezin izan zuen askotan joan, baserriko lanengatik. Gatzagako kale-baserri batera ezkondu zen, (Ijiniona izenez orduan), etxekeo Victoriano Zubillagarekin. Egun berean, Marzelinaren ahizpa Victorianoren anaia batekin Kaparrenara ezkondu zen. Marzelinak eta Victorianok hiru seme-alaba dituzte.

Maria Dolores Plazaola Uribetxebarria (1934)



Gatzagako "Kanparrena" baserrian jaiotakoa, bertan bizi da oraindik ere. Ume-umetatik baserrian lanean aritutakoa da; ongi gogoratzen ditu orduko ibilerak eta azalpen interesgarriak ematen ditu.

Teodoro Plazaola Uribetxebarria (1926)

Kanparrena baserrian jaio zen. Aita bertakoa, eta ama, berriz, Aramaioko Azkoaga auzoan jaioa zen. Gatzagan eskolatu zen, zazpi urtetik hamalaura arte. Etxeko lanengatik, aldika besterik ezin izan zuen eskolara joan. Gau-eskola batzuk jaso zituen. 17 urterekin, Arabako Landarekin mugan zegoen harrobian hasi zen lanean.



Bertan kamioiak gidatzen ikasi zuen, eta lan horretan jardun zuen urtebetez. Baserriko lanak aparte, basolana izan zen bere jarduera nagusia. Beste hiru bazkiderekin batera basoak hartzen zituzten Gipuzkoan eta Araban, eta bide berriak ebaki eta gero, bertako basoetan entresakak egin, ontzigintzarako haritzak bota, pinuak landatu eta beste hainbat lan egiten zuten. Gasteiz ondoko Okinako Estefanía Lopez de Aguilarekin ezkondu zen Gatzagako Arrate baserrira. Duela 40 urte inguru, herriko Arrate tabernaren kudeaketa hartu zuen. Bertan jarraitzen dute gaur egun bere bi alabek. Hiru seme-alaba ditu.

Jose Sasiain

Victorino Zubillaga Zubizarreta (1917-2011)



Ama Abadiñoko "Mendiola" auzokoa, eta amaordea ere auzo berekoa izan zituen; aita Gatzagakoa. Victorino Errosario kaleko 15ean jaio eta bizi izan da. Baserriko lanez gainera, Eskoriatzako "Forjas vascasen" egin zuen lan gerra aurretik. Gerora Aretxabaletako "Cerrajería Valle Lenizen" ibili zen lau urtean, gatz fabrikan 9-10 urtean, eta Eskoriatzako "Ezkurran" 18-20 urtean.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Ekonomia eta industria

1.1. Gatz lantegiaren inguruko kontuak

- **Hizlaria(k):** Plazaola Uribetxebarria, Marcelina; Zubillaga Zubizarreta, Victorino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref:** LEI-001/002
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:00:25. **Bukatu:** 00:03:05
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- **Laburpena:** Gatz-fabrikaren inguruko kontuak. Bera gaztea zela, nagusiei ikusten zien lanean antzinako erara. Manantiala, depositu nagusia, eta beste eraikin batzuk behea jo zuten. Zenbat urte eman zituen bertan lanean. Dozena bat lagun lanean.

Transkripzioa

- Ba, igual hasteko, gatz-fabrikako kontuek edo...
- Gatz-fabrikakuek?
- Bai, apur bat gatz zela eitten zan, ta...
- Gatz-fabrikako kontuak orduan... Bai. Nik [modu] baten ikusi nittuen danak. Lehenauko [zaharrek] lehenauko labetan-ta itten euen gatz [...]... Orduan mutiko gaztia nintzen, ta ikusi itten nittuen, baiña ez dakitzu? Zerik ez. Gaztiak zerik ez. Zegaittik eze ura deposittotik atarateko ta horreik gauza guztiok, ba, horrek danok ikusten nittuen. Ta erruberie bueltaka zela ebillen be bai. Ta danak. Baiña nik ez nekixen zetako zan ta zer eitteko zan ha. Ta gero, oin kasua allegau da, ba, ha mina-lekuko zera, tunela ta danak, ba, hundiduta euezen, ezta? Ya dana ha zerrau zanién, iñok kasorik ein ez, ta, ba, hundidu. Gu [hor] gebitzela, betik puskat hundiduten zanién, ba, arreglau eitten gittuen, ezta? Egurrakin zera in ta kuadrúa in, ta ipini ta barriro jausten zan lekua zerrau, tapau ondo, ta pasua libre ifintten geben. Ta gero urte askuen egon zan, ba, iñok kasorik ein barik. Horreik danak zerrau in zien; ya manantialak be zerrau zien, ta depositto prinzipala be dana goraiño forrajaz bete zan. Tellatua be ittokiñakin-ta, depositto prinzipalera hundidu zan dana; kuartoiok, [...] eta danok hara jausi zien. Ta gero iñok kasorik in barik. Gero Otxoak esaten osten niri "Ze, hor, hor...?" ta "Hor... [hor ibilittakorik], ba, [...], neu". Bai, egunen bat edo bi

einddakuak bai bateron bat, baiña bestela nik, ba, bederatzi-hamar urte ein nittuen hor. Otxoak esan eusten: "Oin hortxe gura gauke jartia zertxobait, ezta? Martxan edo, ahal balitza". Zegaittik eze lehenauko honek fabrika zaharrok eta, ba, hemenguori gatz-fabrikia zan, Gatzagakuori. Hemen ez euen besterik ezebe, gatz-fabrikia. Ta gatz-fabrikian, ba, biharra eitten geben, ba, dozena bat lagun edo... Bai. Ta hemen, ba, jentia zabaldu eitten zan kanpora, ezta? Baiña horra dozena bat lagun... Bai, hor biharrien ibiltten gintzen.

1.2. Lan-banaketa gizon eta emakumeen artean

- **Hizlaria(k)**: Plazaola Uribetxebarria, Marcelina; Zubillaga Zubizarreta, Victorino
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: LEI-001/007
- **Iraupena**: 0:03:20. **Hasi**: 00:25:20. **Bukatu**: 00:28:40
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak »
Debarrenen lantegiak
- **Laburpena**: Gatz lantegian gizonezkoak eta emakumeak lanean. Bera, galdaran ibilitakoa. Lan-banaketa. Bere lanaren inguruko zehaztasunak.

Transkripzioa

- Ta han lana, gatz-fabrikian ibili zitzenien, gizonezkuak eta emakumezkuak lana eitten zauien? Gizonezkuak eta emakumezkuak lana?

- Bai, gizonak eta emakumiek. Gu... Ni neu relebuen ibili nintzen betik. Bai. Gu errelebuen sei gizonezko ibili gintzen. Bai. Han guk esaten geuntsen, ba, goixen aparatuetakuak, ezta, gatza itten zertzen zana, ha goixen aparatuetan ibiltten zan, goiko tellapeien. Eskillarak, holaxe, burdiñazkuak, ta gero, egurrezko pasillua. [Ba... metruak], ba, porejenplo, urak ze kaloria dauken, gazixa ze kalorietan dauen, ta gauzak han aparatuetakuek ikusten eben. Ni neu ibili nintzen zerien, baporrien, kaldaran. Bai, kaldaran ibilli nintzen. Kaldaria, hamabost atmosfera gutxiena; hamabostetik hamazortzira, hamabostetik hamazortzira, hor; behin hamazortzittik gora be peligrua. Bai. Ta hamabostien, ba, ondo, ondo zertzen zan, gatza ondo eitten zan. Lau aparato euzen, ta lau aparatuok, ba, ondo itten euen gatzori. Baiña hor errelebuen-ta ibiltteko ez dao hor [gatza eitten eukitteko]. Zortzi ordu biher zittuen eitten eukitteko bakarrik, gatza eitten. Han gabeko hamarretan sartzen gintzen porsiakaso, porejenplo, jai egunetan-ta, ezta? Jaixen be, ba, biharrien ekitten gintzen, hurrengo, ba, gatz gutxitxo edo "Falta eitten jok eta pedido asko jaok" eta domeka gabien igual ekitten gintzen biharrien. Ta goxerarte ez zan gatzik, harik eta goxeko lauretan, ondo [baixoian], goxeko lauretan, ya lehelengo [entresakia] etarateko. Ta aparatu batek itten eben, lehelengo aparatuak, aparatoik haundixena edo... Ba! Neurrixak igual euken, baiña bero guztiok hartzen zittuen hor lehelenguek eta beste hirurak beste eitten eben hak bakarrik. Bai. Bestiak hiru aparatok lau ordutik lau ordura gatza ataraten jaten; ta horrek bestiorrek bittik bira, ordu bittik ordu bira. Bai. Gatza be hoba; zurixaua., ta dana.

- Bero gehixao hartzen ebalako?

- Hak lehelengo beruok hak hartzen zittuen. Ta ura, gatz-ura, iguala zan, zer, gradu igualetakua. Baiña beruak eta danak lehelenguak handik pasetan zien, ta hak hartzen zittuen, ta gero, gerokuek, ba, hak isten eben bapor sobrantiaz. Bai, hak isten eben bapor sobrantiaz. Bai, ba, aparatuek ezkerreko aldien euezen; ezkerreko aldera, bai.

1.3. Lanaren inguruko zehaztasunak

- **Hizlaria(k):** Plazaola Uribetxebarria, Marcelina; Zubillaga Zubizarreta, Victorino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref:** LEI-001/008
- **Iraupena:** 0:02:57. **Hasi:** 00:28:40. **Bukatu:** 00:31:37
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- **Laburpena:** Lanaren inguruko zehaztasunak; galdara.

Transkripzioa

- Ta lehenengua suakin beroketan zan? Lehenengua suakin?
- Ura beroketan zan hor, oin azkenengo gatza eitten zan aldixen, iketzaz. Bai. Kaldaria, baporra. Baporren... Esaten euen itsasuko bapor baten kaldaria edo hola izeten zala. Kaldara bat, kaldara haundixa. Bai, han kaldara barruen, ba, erdi-sartuta gorputza, erdireiño sartuta. Gero hurrengo tubuak errebentau, tubua zulatu eitten zanién han ez zan ezebe ikusten. [Erak] eukitten eben presiñuakin [dana] baporra. Sue be, klaro, iketza zela zan fuertie, sue be [izeten] zan, baiña sue be [entzun] be eitten eben. Ha zuleketan zanién, "di-da!" kortau, freskatu dana aguro, tubue, ba, arregletako. Oso biheleku txarra izeten zan, berua, barruen oso bero egoten zan. Uraz pasetan geben, ur hotza sarri, baiña oso biheleku txarra. Ta kaldaria baporrezkua. Ta [sarririk] askotan, ba, ikusten ebenian apurtu zala, kortau dana ta, ba, atara gatzok eta aparatuak garbittu, zeaittik eze aparatuak astero-astero-astero garbiketan zien. Bai. Tubuak, horreik aparatuok, kobrezko ta zink ta latoi ta esaten euen holako mezklié eukela tubuak, ezta? Lau-lauak, kobre koloreko zerak, ta aparato bakotxak eruengo zittuen ez dakit berrogei edo... igual... berrogei tubo, departamentu baten, e? Holako [...] baten, altura haundixa, ba, eukiko eben igual haik metro bi edo bi terdi edo luzeeria. Ta haik aparatuak enmadrinauta eruten euen plakak euken euren zuluekin, neurrikuekin, ezta? Ta goittik behera sartzen zebeñ tubua ta enmadrináu eitten zebeñ, [...] sartu ez dain zerien, tubuetan. Ta han ez zan ez... junta... juntie ta bai, ba, urak kanpora urten ez deixen ta zerien. Ta juntiai plaka haundixak izeten zien ta haik, ba, juntak eruten zittuen urik nahastu ez zain, baiña tubuak danak enmadrinauta. Ta madriniaz enmadrinaten zittuen ta han ez zan pasetan. Han martxan jarten zebeñ, ta ura ifintten zotsen ta ez jauken eskaperik. Fuera! Dana enmadrinauta.

1.4. Ikatza Asturiastik ekartzen zen

- **Hizlaria(k):** Plazaola Uribetxebarria, Marcelina; Zubillaga Zubizarreta, Victorino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref:** LEI-001/009
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:31:37. **Bukatu:** 00:32:57
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak »
Debarreneko lantegiak
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- **Laburpena:** Erregaia, Asturiastik ekartzen zen. Ikatza kalitatea. Donostiara ekartzen zuten ikatza, portura. Ikatza inguruko azalpenak.

Transkripzioa

- Ta kalderetarako iketza ze zan, pago-iketza edo...?
- Ez, ez, zera, [arrazita] edo iketz hori. Ba, Asturiastik ekarten euen.
- Harri-iketza?
- Bai. Ha iketza be, ha be, han be iketza... guk laister igarten geutsen. Esaten geutsen enkargauai: "Honek iketzonek ez dauko", ta "Bai, oingo aldixen esan joskuan ez auela bestaldekoik, bestelakoik eta...". [Hori] Donostiako puertotik ekarten euen. Horra barkuan ekarten euen iketza, ta hemen Gatzagako bat euen enkargau han puertuen, ta hari zertzen otsen: "Hi, bialdik hainbeste milla kilo; bialdik hainbeste" edo "[Bagu] bat edo bi" edo... Bai, gure zana. Ta [arrazita] iketz hona, garrik bapez ta berua eukitten ebena. Bentiladoriaz haxia azpittik, azpittik bentiladoriaz, [... txuleta zeran], ta "ra!" jasoten eben gogua emoten otson puntu-punturaino. Kentzen [zeutsen] bentiladorioi, zerrau baztarra guztiak eta, ba, zati baten, ordu-erdi edo hoge minutu edo gura zana, egoten zan bero normal-normalien. Bai.

1.5. Gatza garraiatzeko erabiltzen ziren kutxak

- **Hizlaria(k):** Plazaola Uribetxebarria, Marcelina; Zubillaga Zubizarreta, Victorino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref:** LEI-001/010
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:32:57. **Bukatu:** 00:35:05
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak »
Debarreneko lantegiak
- **Laburpena:** Emakumeen lana zein izaten zen; enbalaje-lana. Gizonezkoen lana. Gatza estaziora eraman eta trenean kargatzen zuten. Oholezko kajak erabiltzen ziren garraiatzeko.

Transkripzioa

- Ta horreik zien... gizonezkoek eitten zittuen horreik lanok, ezta?

- E?

- Kaldarako lanak eta horreik gizonezkuak...

- Bai.

- Gizonezkuen lanak zien horreik...

- Bai. Emakumiek enbalau besterik ez eben eitten. Kartoiak poltsetan sartu, poltsok zertzen zittuen, dobletan zittuen, ta kartoiak "al momento". Han eskua hartuta eukenak, ba, uf! Ze asko, poltsa asko, egunian zertzen euen. Bai. Ta batek beste lanik ez bere kazu bategaz, ya kazutxo bat, neurrixa, ezta? Pixaketan-eta ibili barik, neurrixa izeten da, kazutxo bat. Ta poltsara "dast! dast! dast!". Batek beste lanik ez eben eitten; egun guztien. Bai. Batien bateri toketan jakon, bestien bestiei, bestien bestiei... egunien bat kanbixetan zien emakumiok. Ta besterik ez euen eitten, dana beteten. Emakumiak enbaletan, besterik ezebez.

- Kazutxo horreaz gatza hartu ta zakueta, zakutxueta, sartu...

- Bai, bai, dana. Ta, gero, haikin emakumiekin gizakume bat ibiltten zan. Batu eitten zan, ba, [...], ha izeten zan, han eskue hartuta eukeno ta, ba, bakotxa bere puestuak eozen emonda ta fuera. Han ez zan iñobe. Ha ibiltten zan emakumiekin. Gero beste bat ibiltten zan, ba, kajak montetan; kajak montetan be bai, kajak, oholezko kajak. Kartoizkueta-ta hasi zien, baiña ez eben erresultau. Puertuetan ta transportien ta trenien ta ibiltten euen transporte haundixa. Hemendik estaziñora jaso ta trenian. Ta ez euela erresultetan kartoiak. Pisua be bai, berrogeta hamar kilo hartzen euen. Holakoxe kajatxo baten, ba, berrogeta hamar kilo [...]. Oholezkua, oholezko tablia neurrikuak eindra kabezalak eta, zera, tapa ta gauza danak neurri-neurrikuak ekarten zittuan, ta montetan ebillenak josi besterik ez. Bai.

1.6. Gatza nola garraiatzen zuten

- **Hizlaria(k)**: Plazaola Uribetxebarria, Marcelina; Zubillaga Zubizarreta, Victorino
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: LEI-001/011
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:35:05. **Bukatu**: 00:36:35
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak »
Debarreneko lantegiak
Lanbideak » Negozioak, dendak
- **Laburpena**: Idiekin garraiatzen zituzten gatz-kaxak. Bideak nolakoak ziren; karreteroak ezin. Azkenean kamioietan garraiatzen zuten.

Transkripzioa

- Ta, gero, ha eitten zan karriau? Ta...

- Ta gero, ba, gu oin azken aldera ibili gitzen idixekin. Bai. Hor [Begiñarrokoa] beste basarritar bat, ta gurie ibili zien idixekin karriuan. Ta, gero, hau kamiñuau-ta enbreau-ta in auenien idixak ez zien [bale izeten]. Hor aldatz eta [repetotxo], ta idixak jausi eitten zin "drast!", labandu ta lurrera. Tiratu zela ein biher auen, labandu breaz. Ta, orduen, gero, karreteruok, ba, negau zien. Gurien aitta be, ba, ezin leikiela kamiñuen. Ta, gero, zuek ezautu be ingo zeuen igual, baiña... ez, zuen denporarako itxitta egon [be]... Atxabaltako [Alkur] kamioiaz.

- [Alkur], entzutie badaukat...

- [Alkur] Atxabaltakua, bai. [Alkur] ibiltten zan. Kamioia euen horrek bixen artian, horrek eta beste batek. Ta [Alkur] ibiltten zan kamioiaz ya azkenaldera. Kargetan gutsen kamioia ta Gatzagako almazenea, estaziñoko almazenea jasoten euen. Bai. Ta gero han eitten zaniien, ba, bagoia... bagokada bat eitten zaniien, eskaketan geun bagoia, ta guk obreruok, esaten oskun enkargauak, ba: "Bagoia jatok eta kargau ein bihar dozue". Almazenetik kargetan geben eta fuera. Bai.

1.7. Gatza nola garraiatzen zuten

- **Hizlaria(k)**: Plazaola Uribetxebarria, Marcelina; Zubillaga Zubizarreta, Victorino
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: LEI-001/012
- **Iraupena**: 0:00:45. **Hasi**: 00:36:35. **Bukatu**: 00:37:20
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- **Laburpena**: Gatz-kaxak idiekin garraiatzen ziren. Almazeneko lana.

Transkripzioa

- Lehen, kamioirik-eta ez zaniien, idixekin almazenera erun biher izeten zan?

- Bai, almazenea, idixekin-ta almazenea, ta kamioiaz be bai. Kamioiaz be, ba, hurrengo aldixen, ba, [...] bagoia etorriko zala, etorri ez, ta, hurrengo aldixen, ba, pedidua [ematerako] igual apurren bat falta zala oinddio ta ez zala konpletu ta, ba, egun bat gehixao almazeniien enplegetan zien ta gero almazenetik geuk kargetan gittuen. Bai. Oin balitza, ba, elebadoriek eta gauzak eta... ordun bizkarrak, bizkarrak gorri-gorri eindra. Kajak kanto zorrotz-zorrotzakin ta segi! Bai.

1.8. Tren geltokian gatza gordetzeko tokia

- **Hizlaria(k)**: Plazaola Uribetxebarria, Marcelina; Zubillaga Zubizarreta, Victorino
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: LEI-001/013
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:37:20. **Bukatu**: 00:38:10
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- **Laburpena**: Almazena estazioan zegoen.

Transkripzioa

- Almazena nun euen?
- Estaziñuen.

- A! Estaziñuen euen... Almazena estaziñuan?
- Bai, estaziñuan bertan. "Gure Ametsa"...
- [...]
- "Gure Ametsa", hantxe. Ta, ba, ha aparkaderua dauen han, zerori dauzena. Bai. Ta almazena euen lekura ixa "Gure Ametsa"-ko ha zera allegauko da, e? Komedoria.
- Komedoria [...], ta harutzatxua esatziñua.
- Bai, almazena aparte euen estaziñotik. Estaziñua handikaldien, almazena hemetikaldien. Bai, holaxe.
- Ta gero ya handik, ba, repartidu ta...
- Bai. Hemengo transportioi hola izeten zan.

1.9. Rekadistak

- **Hizlaria(k)**: Plazaola Uribetxebarria, Marcelina; Zubillaga Zubizarreta, Victorino
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: LEI-001/014
- **Iraupena**: 0:03:40. **Hasi**: 00:38:10. **Bukatu**: 00:41:50
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak »
Debarreneneko lantegiak
Lanbideak » Negozioak, dendak
- **Laburpena**: Rekadistak. Bertakoak Gasteizera joateko joera. Bergarara mandoarekin joaten zen rekadista.

Transkripzioa

- Gero egoten zien baitte errekadistak edo... Esan gura dot, transportie esan dozu ta rekadistak edo errekauek eitten ibiltten zienak edo...?
- Bai, hemen errekauek orduen, ba, errekaue gutxi, ezta? Zegaittik eze hemendik bertatik Vittorixara jentia faten zan trenian.
- [...] esan gure dau [karreterue]. Martzel ta Patxi ta...
- Bai. Hemendik lehelengo errekauek haundixenok eitten, ba, Vittorixara faten zan bertako jentia. Ta Vittorixara fan ta, ba, handik [...]. Baiña etxien beti zerbaitte falta eitten dau. Ta falta eitten ebenien hemen bertan kalien euen bat rekadista ibiltten zana Bergarara; goixien urten ta gabien bueltetan zan Bergaratik. Mando bategaz, mula zer haundi bategaz, karrua ta rekadistia. Bai. Marzel, Marzelo Elgoibar. Hil zan. Edadekua zan; ya, ba, gu gaztiak eta ha edadekua. Ta, ba, ha akostunbrauta euan holaxe. Bai, hemen [...] be gabetan, ha astien ez dakit zenbat egunien fango zan, baiña ha astien egun bi, hiru edo lau igual fango zan. Ta gero Maulandatik hona gorako, sarririk askotan, pisua ta karrua ta mandua be ya [...] bueltia eindda kantsauta, behixakin semiak urteten utsen Maulandara. Behixek eukitten zittuen pareja bat etxien, ba, terrenuetan-ta biher puskat eitteko, ta gero behixekin Maulandara urteten utsen ta haik lagunketan utsen hona etortzen behixekin. Bai. Ta hak, ba —ni akordetan naz— batien... gurien be, ba, zerbait etxien-edo falta bazan edo, hurrengo edozer gauza, ba, txutxerixaren batzuk igual, ta, ba, "Haretzek ekarri bihar dozu, Marzel" ta "Bai, bai, ekarriko dotsut". Ta ya esta. Hak errekauek eitten zittuen. Hartan ona, e! [Buru... buru] ona hartan. Bai.
- Ta fan ze eitten zan, karrua hutsik faten zan ta gero karrua beteta etorri?

- Sarri gatzak-eta eruten zittuen, zegaittik eze, ba, hor behien be batzuk: “E! Ekarridazu zaku bat gatz!” batek be igual; beste batek igual, ba “Urlixa lekutatik ekarridazu hauxe ogixau edo bestia”; milla erreka modu. Ta, ba, hak ein eitten zittuen. Ta hak —akordetan naz ni— behixakin-ta gatzafabrikatik, ba, igual hiru-lau zaku ekarten zittuen kalera. Ta kargau ta hurrengo egunien urteteko goxien kargauta eukitten eben gertu-gertu etxe kuok ipintten utsen. Ta, ba, ha goxien hartu ta faten zan preparauta. Bai, erreka uak.

- Gatzak errepartidu...

- Bai. Gero [basuen...], ba, jentiek, ba, “Etorriko dok” edo “Bixer fango gaittuk etxera”; hemen kalekuok, ba, bertakuok bertara faten gintzen ta, ba, karruen-edo han eukitten eben etxien-edo erretirauta. Errekauek gauza haundirik ez zan izeten, baiña... Hurrengo... Hurrengo igual “Ekarrizu zesto bat” igual, “barrixa”; ta hemen, ba, hau zestero jentiau, hau orduen ez ze ben esistiduten hemen, ta hak hor behe-aldetik ekarten zittuen.

2. Lanbideak

2.1. Rekadista lanaren inguruko zehaztasunak

- **Hizlaria(k)**: Plazaola Uribetxebarria, Marcelina; Zubillaga Zubizarreta, Victorino
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: LEI-001/017
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:48:50. **Bukatu**: 00:50:40
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Lanbideak » Negozioak, dendak
- **Laburpena**: Rekadistak erabiltzen zuen gurdia nolakoa zen. Gurdian zama garraiatzen zuen bakarrik; jenderik ez.

Transkripzioa

- Eta karrue zelakue zan, ba? Zelako karrue eukitten euen?

- Karrue errubera galantakin ta bi erruberakua bakarrik. Bi errubera.

- Tolduaz.

- Tolduaz?

- Bai.

- Bai, bai, bai. Ha tolduaz ta aurrien be asientuaz ta dana karruoi. Formala [itten] eben. Bai. Honek, Marzelo Elgoibarrek, laukua, horrek be laukua: aurrien bi ta atzien beste bi. Aurrien estutxuaua, atzekua zabalao... Bai. Esaten eben torpetxuaua izeten zala, baiña seguruaua. Laukua seguruaua; kargia alde batera eukitta be, ba, hurrengo kaballuek be labankada bat edo edozer gauza eindda, ba, kargiek ez ebela domiñetan ez atzera ta ez aurrera. Lau erruberakin, ba, ondo. Torpetxuaua esaten eben. Bai, entzunda nenguen ni harei ta.

- Jendeik ez zauen ebalten, ez? Karruan jenteik ez zan ibiltten...

- Ez.

- Jenteik ez, jenerua bakarrik...?

- Ez, iñor ez auen ibiltten, eurak bakarrik.

- Bai, eurak bakarrik. Ez, ez, ez. Eurak, eurak. Bai. Harek seme bi etxien, ta haik lagunketan otsen dana. Berak ya hoixe bi ajiori bakarrik. [Han] oso edadetu ta gero eitten eben, e! Ta Bergaratik bueltia ein ein biher da! [Ha] beti batien ikusi, bestien ikusi... Mondrau parien be ikusitta [dauket behin

baiño sarrixao], ta ha oiñez. Bateko errekaak, bestia bestia, bestia bestia... oiñez, "tikirri-takarra". Bai.

2.2. Gatz-fabrika; dendak...

- **Hizlaria(k)**: Plazaola Uribetxebarria, Marcelina; Zubillaga Zubizarreta, Victorino
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: LEI-002/005
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:05:45. **Bukatu**: 00:07:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Lanbideak » Negozioak, dendak
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- **Laburpena**: Gatz-fabrika. Dendak; barberoak...

Transkripzioa

- Gatz-fabrikatik aparte beste lanik, beste lan-klaserik hemen ez zan izaten? Esan gura dot, beste ofiziorik edo...? Lana hemen gatz-fabrikari eta...

- Hemen ofizio hola fijosik...

- Bestela, basarriko...?

- Guk be basarriko besterik ez dou ikesi, e?

- ... dendarixak eta...

- Nire anaiak-eta, ba, faten zien... [...]

- Oin dendarik be ez dao ta ezebe ez dao ta oin dana ezer bihar badozu kanpora fan bihar dozu. Orduen bi denda egoten zien kontinuo. Denda bi beti. Bai.

- ... lagunketan euen, ezta? Baiña...

- Ta bi denda [azen] orduan, e? Bi denda orduan Gatzan?

- Bi, bi, bai.

- Bi denda ta barberue be bai ta...

- Barberue be bai. Bi barbero eozen.

- Bi barbero?

- Bi anai.

- Alpargaterue be bai, ez? Alpargaterue be bai...

- Bai, alpargaterue be egon zan hor Azpeitti, Azkoitti ez dakit nungue zan bat. "Txulo" esaten otsen.

- Ez dakit zelan [...], apellidue zan "Txulo" edo zelan zan?

- Ez, ba, moten bat.

- A! Moten bat...

- Moten bat izengo zan. Bera moreno-morenua [...], bizarra ta beltza ta zerien ta, ba... Bai, esaten otsen. Ta hak alpargatak eitten zittuen hak bai. Hak alpargatagiñen ta danien gero.

2.3. Umezain Bartzelonan

- **Hizlaria(k):** Berrostegieta Goiburu , Felipa Saturnina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref:** LEI-003/002
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:00:30. **Bukatu:** 00:02:35
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Neskameak
- **Laburpena:** Bartzelonan egon zen bi urte ingurutan Markinako pilotari baten etxean umeak zaintzen. Orduko ipuinak.

Transkripzioa

- Kanpuen ibilitekue zara zu be?
- Nik urtebete in neuen lehenengo fan nitzenien, ta bigarrenien, ba, egun batzuk gutxiao.
- Bi urte, behintzet, orduan...
- Urte bi.
- Urte bi...
- Deskantsuagaz, baiña urte bi. Eta tipo onak zien etxeko andre-ugezabak. Harek gau bat be ez euen isten urten barik. Pelotarixak, badakitzu. Pelotarixa zan gizona, ezta? Horrek zesta-puntakuak. Markiñakua zan. Eta hak egunero kanpuen [afaitten] ez baeuen urten, behintzat. Edo zinera edo teatrura edo kabareten batera be igual. Behin eruan nindduen, etxekoandriaz [han], e! Etxeko andriaz, hiru umiak eta neu. Frontoien egon, partidue ikusi, urten geuen ta esan euen etxekoandriorrek: "Ba! Oin ez goiez etxera zertzen, afarixa preparau ta zertzen. Hementxe dao kafeterixa bat", han zerien, "Paseo Gracia" edo han zerien ez dakit ze bokakalletan edo, "Hementxe dao kafeterixa bat ta horratxe fan ta hartuko dou". Fan gara, [...] umiak —umiak, hirurak, hirurok, esateko, umiak— eta porteruorrek esan otsen: "Señora, estos no pueden entrar", esan otsen, ezta? Ta, ba, gu isilik. Ta berak esan otsen "¿Por qué? Si venimos a tomar un café. —esan otsen— ¿No es una cafetería o qué?", "Era".
- Aldatuta euen, orduen?
- Bai, [aldatuta]. Harek ez ekixen ezer ta guk gutxiao. "Era". Bueltia ein ta etxera.

2.4. Umezain Bartzelonan

- **Hizlaria(k):** Berrostegieta Goiburu , Felipa Saturnina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref:** LEI-003/003
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:02:35. **Bukatu:** 00:05:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Neskameak
- **Laburpena:** 14 urte zituela Markinako etxe batera joan zen umeak zaintzera. Lau urte eta erdi egin zituen beraiekin. Pilotaria zen etxeko gizona eta bi urtetan Bartzelonara joan zen beraiekin.

Transkripzioa

- Gazteik fan zitzen...

- Ba, hamabost urte bertan zerien; Markiñan [neuen] hamabost urte kunplidu neuenien. Hille bi in gittun Markiñan, ezta? Eta hantxe neuen. Hamalau urteaz sartu nintzen ta hamabost hantxe kunplidu neuen.

- Kriada han be?

- Ba, eurakaz. Etxekoandriek... [Oseake], hemen euken ama. Etxekoandriek hemen euken ama, eta anai bat, ezta? Eta etorri zien Kubatik edo Mejikotik edo ez dakit nundik etorri zien. Eta ekarri euen ume txikiña, sei hillebeteko umia. Ta fan biher euen beste batek, baiña bestien ama gaixotu ein zan eta, ba, neskiorek ezin leikiela fan esan otsen, ezta? Ama gaixotu ein jakola ta itxoin ein biherko dauela ta... Baiña umie zainketako biher euen bateronbat, eta gure amaana etorri zan amandrie, umien amandrie. Bera etxekoandrie ez, haren ama etorri zan, ta esan ei zotsen —nik ez dakit zer esan otsen, ezta? ni ez naz akordetan ta—: “Esto... esto... Satur, bialduko dozu umie zainketako? Etxera etorriko da lo itten, e! Baiña umie zainketako. Ta geurien bazkalduko dau”, ta, ba, “Bueno, denpora gutxiko bada, bai”, kontestau ei zotsen berak, ezta? Ta fan nitzen. Akordetan naz, karnabal eguna zan, gaiñera, e! Karnabalez jantzitta euzen plazan fiestie ta. Hori akordetan naz. Febreruen atzenak edo izango zien. Eta fan nintzen; ba, lau urte t´erdi, esan notsun moduen.

- Eurokin?

- Egun birako fanda.

- Egun birako fan ta...

- Klaro, gero bestia ez zan etorri. Ta zelan ez zan etorri, ba, [...] esan [otsen]: “Geldittu...?”, ta “Bueno”. Eta gero, ba, esan otsen juni... ez juli... Hurrengoko urtien izango zan [...] Barzelonarako, ta amak: “Umia don, baiña, ondion! Hamabost urte ez jaukan ta! Hamalau urteaz zelan fango don, ba, Barzelonara?” esan otsen. Gero amak kontetan osten, ezta? Niri ez osten eze esan ta. Ta nik baietz. Markiñan be egon nintzen hillebete, zeatik bera gizona Markiñakue zela zan, han, Jemeiñen. Egun baten, akordetan naz, automobil txiki-txiki-txikitxo bat zan. Orduen ez euen automobilik! Bateronbatek beuken... Ta harek baeuken holako txiki... baiña nik ez dakit ze automobil zan; txikitxo bat! Hiru neska eta ez dakit sei edo zazpi ume automobilien sartu, bai? Eta Jemeiñeraíño eruen nindduen Markiñatik. Nik arbolak ikusi be ez nittuen eitten! [... belozidadie]! Ene! Honek akabauko gaittu! Eta etxien ez ekixen ezer. Etorri nintzenien, “Nun egon zarie?”, ta isilik. Baiña baekixen, e! Ez dakit zeíñez fan nintzela. Ta “Haregaz”. “Zorua da ez dakit zer baiño ta ez dakit...”, bilddurtuta danak eta gu [...] automobilien. Ez dakit sei edo zazpi ume zoiazan, e! Nik bi, neskatillia ta mutikua; beste neska nausitxuena ha ez zan etorri. Ta bestiek be, ba, holaxen erungo euen. Asike...

2.5. Josten ikastera

- **Hizlaria(k)**: Berrostegieta Goiburua , Felipa Saturnina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: LEI-003/005
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:09:05. **Bukatu**: 00:10:25
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Lanbideak » Sastreak, jostunak

- **Laburpena:** Arrasaten josten ikasten egon zen.

Transkripzioa

- Gero joskin ibili zitzen...
 - Bai. gero Mondrauen Gorroñoigoitianien ikasi neuen, amagaz, Pruden. Pentseizu, hori, Alfonso edo hori txikitxue zan; esateko, jaixobarrixa ni han ibili nintzenien, ezta? Ta amandriek esaten osten, betik euen negarrez, betik negarrez umiori ta: "Zazpikixori halakuori, zazpikixori!" esaten otsen, ezta? Ta, ba, "zazpikixa" negar eitten euelako esaten otsela. Ta behin preguntau ein notsen. Zera, Mondrauen tabernia beuen zera, "Berbena" ez, beste bat zan, [...] tabernia, han, frontoi ondun euen. Hak euken automobilla ta. Eta gero euen bestia "Hilarionena", eta hango neska bat be josten ebillen. Ta harek kontetan zittuen izateko batzuk... tabernan entzunda, e! Tabernan entzunda. Ta guk, ba, juerga. Ta bestie etorten zan ta "Baiña ondion ez dozue ein hau edo hori edo bestia" ta halaxe. Ba, holaxen. Ni astelehenien fan ta zapatuan etxera. Holaxen ibili nintzen; urte t' erdi edo ein neuen.

2.6. Arropak josten urte askotan

- **Hizlaria(k):** Berrostegieta Goiburu , Felipa Saturnina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref:** LEI-003/007
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:11:15. **Bukatu:** 00:13:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Sastreak, jostunak
- **Laburpena:** Jostun bezala lan egin zuen urte batzuetan. Gasteiztik ekartzen zioten lanerako behar izaten zituen gauzak.

Transkripzioa

- Ta han joskin ikesi ta gero...
 - Han joskin ikesi ta gero etxien egon nitzen. Bai, etxien. Ta holaxe, nire bizimodu holaxe. Batzuk kobrau ta beste batzuk kobrau barik ondion.
 - Neurrira...? Holan, neurrixak hartu ta baikotzai...?
 - Bai, bai, bai. Badakitzu, hemen, ba, batak eta frakak eta alkondara ta... gehixen horixe. Bai.
 - Zuk zeuk kanporako eitten zauen...
 - Bai. Baiña horreatik esaten dotsut, batzuk kobrau ta beste batzuk kobrau barik eta ondion halaxe.
 - Eta ehunak-eta edo tela edo materiala-ta nundik eskuraketan zittuen?
 - A! Ez, telia eurak ekarten euen itteko. Bai. Eta, bestela, ba, neuk ezin baneuen fan Vittorixara, zera, hor Gatzaga gaiñien Gure Ametsan euen bat lehen ferrobixue izandakua. Ezta? Eta hak euken debalde trena. Eta errekauren bat bihar banauen harei emoten notsen apuntaute ta harek ekarten osten Vittorixatik. Klaro. Eta etxera ekarten osten, e! Ta propiñatxo bat emoten notsen ta...

3. Baserria

3.1. Antzinako bizimodua eta berrikuntzak

- **Hizlaria(k):** Plazaola Uribetxebarria, Marcelina; Zubillaga Zubizarreta, Victorino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref:** LEI-001/021
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:55:55. **Bukatu:** 00:56:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena:** Antzinako bizimodua nolakoa zen. Berrikuntzak egun.

Transkripzioa

- Bai. Alde guztietara ez dau begitu, [baño] oin adelantua jarri da, bai? Ta adelantuz ez dau. Baiña gure denporan ez zan holako adelanturik eta orduen aixkoria bizkarrien ta arrea! hareaz. Goxien fan ta gabera arte, geratu be. Oin, oin motosierrak, oin egur gogorra bada be, igual-igual motosierriaz "rast!" ebaten dotsue ta ya esta.

3.2. Baserrian eta lantegian lan egin beharra

- **Hizlaria(k):** Plazaola Uribetxebarria, Marcelina; Zubillaga Zubizarreta, Victorino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref:** LEI-001/022
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:56:30. **Bukatu:** 00:57:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena:** Basomutil ibilitakoa. Lantegian eta baserrian lan egin behar. Gariaren garrantzia.

Transkripzioa

- Basomutil be ibilittakua zara?
- E?
- Basomutil be ibilittakua...
- Bai.
- Ba, guztira. Hemen etxien euenak, ba, guztira ein biher izeten eben.
- Ta gero...
- Fabrikan be bai, baiña gero handik ordu librietan, ni betik kasik errelebuen zela ibili nitzen, basarrixen be bai.
- Ein ein biher...
- Bai.
- Gero [...] ...
- Baitte, ze oingo konturik ez euen orduen, e? Orduen, orduen garixa be etxerako urterako ogixa eittteko etxien hartzen zan. Etxerako justo samar, baiña etxien hartzen zan. Ta etxien. Ta garixe erein ta hortik eta hemetik

eta itteko, ba, betik, betik in biher zeben lana. [Parejakin] lana soluen ta baztar guztietan. Oin danak zelai itxitta daoz. Ta geuk be orduen bastante terreno eukitten geben; oin bapez. Oin ez... oingo jentia... Geu be holaxe nagittu gara, e! Geu be.

- Aldatu ein da ta...

- Bai. Ya oingue ikusi ta, ba, geu be hartaraxe jarri.

3.3. Gasteizera idiak saltzera

- **Hizlaria(k)**: Plazaola Uribetxebarria, Marcelina; Zubillaga Zubizarreta, Victorino
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: LEI-001/026
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 01:02:50. **Bukatu**: 01:04:15
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena**: Gasteizera oinez idiekin. Egiten zuten ibilbidea. Idiak noiz eta zergatik saltzen zituzten.

Transkripzioa

- Zeuek oiñez Vittorixara? Oiñez?

- Idixekin bai.

- Idixekin...

- Oiñez, oiñez. Faten gintzen hemendik Betoñoaiño idixekin. Ta gurian aittak, ba, lagun bat eukan hango beziño bat, Betoñoako konbentuen bestaldetik kamiñuen, pare-parian. Ta lagun bat eukan ta, ba, zer ta ikusten baeben noizbaiten [batenbaten] "Hi, ba, santixauetan etorri gure duenia]. Abisau barik be igual, e! Ni han egongo nauk", "Bueno, bien". Ta, ba, [...] Idixok urte bi edo hirutik-edo kanbixau eitten gittuen. Hemen lanien ondo jarten zienien, Arabarako moduen jarten zienien, saldu. Ze dirua hor egoten zan, arabarrak be konfiantzazkuak, ba, betik...betik gehitxuo. Ta hara fan, hara allegetan gintzen gaberdi hurtxuen edo hola ta idixoi jaten emoten gutsen ittoien, ta geu be erretiretan gintzen ta eurek be bai. Ta ohia, e! Hantxe gertu. Ta gu aitta-semiok han alojetan gintzen. Goixien jagi, ta idixei jaten emon ta hortik eta hemetik idixak plazara atara ta aide idixekin...

3.4. Zuhaitzak botatzearen inguruko kontuak

- **Hizlaria(k)**: Plazaola Uribetxebarria, Marcelina; Zubillaga Zubizarreta, Victorino
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: LEI-001/032
- **Iraupena**: 0:00:56. **Hasi**: 01:13:04. **Bukatu**: 01:14:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane

- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
Natura » Meteorologia
- **Laburpena:** Pagoa "kapau". Zuhaitzak botatzearen inguruko azalpenak. Egurra zertarako behar izaten zuten.

Transkripzioa

- Trankilo, bai. Holaxe.
- Pagua "kapau" hori zer da? Pagua "kapau" esan dozu. Hori zer da?
- Kapau, pagua...
- Alde batera fan dain.
- ...materixalerako-ta ipurdixe kuriosotu eitten jako ebateko.
- Ipini [...] ez dain noberana fateko.
- Ta gero, noberak gure daben aldera botateko han goittik behera kapaduria, haren fallora...
- Fan dain?
- Bai. [Botaten dozun nibel igual] badao ta pisu apurtxo bateaittik bestaldera be zeuk kapaduria ein dotsazun aldera fango da. Bai, bai.
- Arbolie txikiñe bada, bueno, bultzatute fango da, baiña haundixe bada...
- Bai, bai. Haundixen igual. Haundixai be kapadura haundixuaue ein ta...
- Bai. Gu, ba, gu basuan-ta ez; holakoxen baten. Bestela etxeko bihelekuak: etxerako sutarako egurra ta, ba, hemen urtien...

3.5. Umeen arropak

- **Hizlaria(k):** Berrostegieta Goiburu , Felipa Saturnina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref:** LEI-003/008
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:13:20. **Bukatu:** 00:16:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- **Laburpena:** Umeak nola janzten ziren. Barruko arropak. Umeen frakak atzetik zabalik.

Transkripzioa

- Eta orduan zela jazten zan? Porejenplo, umiek zela jazten zien?
- Umiek ointxe... ez... Bueno, frakakin ta holan ez, neskatillak sekula be ez frakak, e! Beti euren soiñekotxuekaz. Perkalezko soiñekotxuek, ezta? Ba, zurixak, ondo zurixak, [babatxoren] bategaz edo [mantaltxuekin] edo holaxe, ezta? Fruntze-fruntze in, zertu, eta holaxe, neskatillak holaxe. Mutikuek ez, mutikuek ya frakakin.
- Fraka motxak ala luziak?
- Ba, batzuk motzak, beste batzuk luziek eta beste batzuk erdizpurdizkuek. Ez luziek eta ez motzak, holan belauak tapauta... Ta txikitxuek bazien, gurien modukuak bazien, atzekaldie zabalik, alkondaratxue urtenda... "Han Gregorio!". Hemen bat ya nausixa, Gregorio euken izena, ezta? Ta karterue zan. Ta ama oso joskin ona zan; [hala be] gizonezko erropetan oso ona zan. Ezta? Erropa ona itteko ez, e! Baiña diarixoko erropia itteko. Eta beti ibiltten zan alkondaria, zera, fraketatik kanpora. Ta "Han bajoian sebolíña darixola dauela", burla.

- Seboliña... zela esan dozu? Zeboliña darixola?
 - Seboliña...
 - Zer da hori?
 - Seboliña, ba, alkondaria fraketatik bistan. Ezta? Ta holaxe, holaxe.
 - Seboliña darixola...
 - Seboliña darixola.
 - Seboliña alkondariai esaten [xao]?
 - Alkondarie... zuk alkondarie jazten dozu ta, ba, barrura, fraka barrura, sartzen dozu, ezta? Ta atzekaldetik betik, zera, [ziminezkoka], [atzetik ibiltten]... Ta seboliña esaten gontsen. Umiak... umiei ifintten notsen, holan... ba, berbetan ez zekixenei-ta, ba, holan, gaztiak zieneien, badakitzu, frakak ifini ta ezin kendu eta kakaguria baueken, kaka fraketan eitten euen. Eta ein ez deixen, zabalik. Eta, holan, ba, makurketan zien, eitten euen, ta ya esta, ez euen frakarik [...]. Pentsau ein bihar da dana!
 - Oseake, umiek fraka zabal-zabalakin ibiliko zien orduen...
 - Eta barruko erroparik-eta, lehenao beti ez zan ibili...? Bueno, lehenao...
 - Bai, ez... guk geurien sekule ez dou zertu. Kamisetie ointxe letxe, ezta? Neguen felpazkue edo gura dana eta udan mehiak, tirantedunak edo zerak, ezta, betik. Gurien ama difuntiek hortarakotxe betik udan “quita y pon”, eta gero beste bat “de repuesto”, edozer gauza pasetan bada be, akzidente bat edo edozer gauza pasetan bada be. Ta holaxe. Hori ez... Kamis... Ta beste batzuk be holaxen ibiliko euen, nik ez dakit, ezta? Baiña... Bai. Baiña, bestela, oin lako lujorik ez, esaten dot. Atxorrotz egunerako bata barrixe eitten oskuen ta urte guztirako. Ha domeketan diarixo; domeka guztietan. Ya gero beste bat barrixe eitten euenien ha aste-egunetan be bai; bestela aste-egunetan ez, e! Aste-egunetan estropiau eitten da ta.
 - Jai-egunetarako, orduan, baeuan erropa...
 - Bai.
 - ... apartekua.
 - Apartekua.
 - Ta batie ze izeten zan? Zelakue?
 - Perkalen bat... Perkalezko telia, ezta? Oin ez dao perkalik; izararik be ez dao perkalezkorik eta. Eskerrak lehen ein nittuena, bestela... nik horrek nylon-ezko izaretan ezin dot lorik ein.

3.6. Baserritik bizimodua ateratzea oso zaila; kanpora lanera irten beharra

- **Hizlaria(k)**: Plazaola Uribetxebarria, Maria Dolores
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: LEI-009/004
- **Iraupena**: 0:03:10. **Hasi**: 00:01:25. **Bukatu**: 00:04:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
 Baserria » Baserriko lanak » Garia
 Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
 Baserria » Baserriko lanak » Artoa
- **Laburpena**: Familia handiak baserri gehienetan. Kasu askotan seme-alabak morroi, neskame... joan behar izaten ziren. Anaia, morroi joandakoa 9 urterekin. Bestela ere, lantegi edo harrobietan lanean hasi behar izaten ziren, ahal zen moduan. Zaila izaten zen bertako baserrietatik bizimodua ateratzea. Garia, artoa... ereiten ziren.

Transkripzioa

- Esan dozu familixa haundixa izan zariela zuek, ez? Lehenao basarrixetan normala izaten zan, ez? 6-8 eta hortik gora...?
- Bai, gutxiaokuak be bai, baiña gu asko izan giñan.
- Eta gerora, basarrixan lan asko egongo zan umetan be bai? Gero seme-alabak, eztakit, bihar bada zeure sasoiari ez, baiña aurrekuak, zer izaten zan asko, morroi juatia? Edo kriada juatia?
- Nire anaiak, por ejemplo, esan gura dozu?
- Bai, edo igual zure gurasuen sasoiari, eztakit, igual anaian sasoiari ez horrenbeste ...
- Bai, hau 9 urtekin morroi fanda dau. Auen, kalro. Eta besta batzuk, ba, bueno, fabrikari, ahal zan moduen, edo kantaratan. Kanteria badakitzu, harrizak [etaraten] zana, klaro.
- Eta fabrikari, orduan, juaten zian ya mutillak?
- Bai.
- Hemen gatz-fabrikari edo nora?
- Eskoriatzara edo Mondrauera edo... hemen batzuk gatz-fabrikari be bai. Ahal zan tokira.
- Orduan, zeure denporarako ya mutillak-eta fabrikariko jokeria zeken, ez? Basarritik bizimodua atara biharrian...
- Eske hemengo basarrixak ez auen emuten... ez auen emuten, holan, famelixia aurrera atateko.
- Terreno txikizak edo...?
- Klaro.
- Edo aldapa asko edo zegaittik?
- Dana, dana. Lo que pasa que, klaro, ereitten zan garixa, ereitten zan artua, e? Por ejemplo, ereitten zan garixa eta gero jotzen zauen erroetan eta ya urte guztiko, e... ogixa, etxien itten zauen, urunagaz, jota. Ogixa, ba, astian behin edo itten zauen, ezta?
- Bai, hori ze izaten zan labako sua edo...?
- Hori da, hori da.
- Orduan garixa inportantia izango zan, ez? Urte guztirako ogi hori...
- Honbre, ba, bai.
- Eta gero kanpotik jornalari bat etortzen zan eta...
- Honbre, betik, e... betik ayudan bat biher zan, ze garixakin bakarrik ez auen...
- Bai, beti hartzen da edo patatia dala edo... ez? Basarriko gauzak ...
- Klaro, klaro. Bai, bai, patatia be bai... Bai, bai, basarriko gauzak, klaro, etxerako gauzak, hartzen zien: patatia, artua... Bueno, artua jeneralian gehixau izeten zan oilluandako edo... en fin. Eta bueno, ba, noixik behiñien ogixa itten zanian, itten zan artua, e? Artua, "la borona" esaten jakona, eztakit ikusitta dakotzun ferixatan ta...
- Bai, zapal hau horixa dana?
- Horixa, hori da! Hori be bai itten zan.
- Eta hori ze izaten zan? Gosaltzeko edo armozurako edo...?
- Klaro, klaro, klaro.
- Orduan, ogi normalakin batera edo...? Artua be itten zan labako suan?
- Bai, bai, artua, oseake... garixena ez, urunakin itten zauen ogixa eta artuenakin itten zauen artua, artopilla esaten jakona.
- Artopilla.

3.7. Baserritik kalera lanera; Eskoriatzara bizikletan

- **Hizlaria(k):** Plazaola Uribetxebarria, Maria Dolores
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** LEI-009/005
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:04:35. **Bukatu:** 00:05:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- **Laburpena:** Lantegi garrantzitsuak inguruan. Mutil gazteak basoan lan egiten zuten sarritan, egurra ateratzen... Baita harrobietan ere. Orduan oraindik ez zegoen kooperatibarik. Bizikletan joaten ziren Eskoriatzara.

Transkripzioa

- Eta, esan dozu hori, fabrikara mutillak Eskoriatzara-eta, orduan, kooperatibak, ez? Izango zian ya...

- Ez, gutxiao zan orduan kooperatibak, e? Gutxi.

- Ta zeintzuk zian orduan fabrika... eztakit, hemendik-eta nora juaten zian?

- Ba, bueno, bi anai ibili nittuen Alzan, Eskoriatzan, urte askuen. Bat hau da. Hau ibili zan fabrikara baiño lehenau, ibili zan mendixan egurra ebaten, ibili zan kanteran, lehen esan dotsutena, harrixak ataten... danetatik, danetatik! Bai.

- Orduan, kooperatibak baiño lehenau, klaro, beste fabrika batzuk zeren Eskoriatzan?

- Bai, bai, bai.

- Eta hemendikan hara juateko, zelan? Oiñaz edo...?

- Eskoriatzara fateko?

- Bai. Bizikletan? Edo...?

- Bizikletan, bizikletan. Orduen ez abillen kotxeik oingo moduen, orduen, bizikletan. Bai, bai, ta bizikletia ekenak... Eta gero, ba...

- Dotore, ez?

- Eta gero ifini zan motorra. Uuui, gero motorra! "Que lujo! Que lujo!"

- Orduan, hemendik hara, bizikletan. Eta zer juango zien, gero igual kuadrillak, ez?

- Bueno.

- Eztakit, bat baiño gehixao edo...

- Bai, bai, klaro.

- Juntauko zian batzuk eta...

- Baiña, ba, bueno, ahal auenak ahal auen tokira faten zan! "A sacar la vida"!

3.8. Ingurua zeharo aldatu da: basoak, lursailak...

- **Hizlaria(k):** Plazaola Uribetxebarria, Maria Dolores
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** LEI-009/006
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:05:50. **Bukatu:** 00:07:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa

- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena:** Ez da erraza bertako baserrietatik bizimodua ateratzea. Hala ere, ez da baserririk galdu. Ingurua asko aldatu da: orain pinudi asko dago; lehenago soroak ziren lursail gehienak. Zelai batzuk ere bazeuden, baina gutxi. Basoetan, pagadiak nagusi.

Transkripzioa

- Esan dozu basarri hauek ez diala, holan, bizimodua errez ataratzeko. Galdu ein dira hamen basarrixak, hamen inguruan? Asko aldatu da? Ez dakit, ba, igual lehen basarri asko zeren eta oin batzuk ya lagata...
- Eske hemen daozen basarri ya gehixen-gehixenak ya labratia itxitta dao, ya kasik, esateko, danak. Esateko, kasi danak.
- Baiña galduta, basarrixa jausitta edo abandonauta edo...?
- Bueno, ez, ez, ez, baserrixak ondion danak dauz kasik, bueno, [...] kasik danetan bizi die, jentia. Bai, bai, bai. Eta hori esan dotenori be arreglau ein daue. Oin bizi ez diena be, etorten die, ba, asteburutan edo zerien baiña... arreglauta txulo dau. Baiña, bestela, bizi danetan.
- Orduan ez da geratu, ez, [...] hutsik edo...?
- Ez, holan, arruinauta moduen esan gura dozu? Ez, ez, ez.
- Ez dakit, zure akorduan ingurua zelakua zan lehen? Zu umia edo gaztetxua ziñala, ez dakit, asko aldatu da? Basarrixak bardin jarraitzen dabe, baiña basuak eta paisajia diferentia zan?
- "Lo que pasa que", piñua gehixao ikusten da oin nire txikittan baiño; fan zan denpora baten piñua, piñua sartzen, piñua sartzen. Baiña, bestela, ba, bueno...
- Orduan, zeure ume-denboran ze izango zan gehixao? Zelaixak, ez? Berdia, labraua...?
- Labrautakua gehixau. Oin dau zelaixa gehixau. Labrautakuak, labrautakuak, bai, bai.
- Eta basuak ze ziran orduan? Ez dakit, pagua edo...?
- Pagua, pagua, bai. Baeozen piñuak be, e? Bai, bai, baeozen piñuak be, baiña pagua gehixena.

4. Euskara

4.1. Feriara Gasteizera joateko ohitura; txerri-tratua

- **Hizlaria(k):** Plazaola Uribetxebarria, Marcelina; Zubillaga Zubizarreta, Victorino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref:** LEI-001/025
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:59:40. **Bukatu:** 01:02:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Euskara » Lexikoa
Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena:** Idiak saltzera Gasteizera. Feriak asko aldatu dira; lehenago asko saltzen zen. Txerri-tratua Gasteizen; "kurriñeroa".

Transkripzioa

- Aurrekuan esan zosten Vittorixara be fanda zazela, ez? idi-parie saltzen.
- Bai. Ni mutiko haundixe ez nitzela, txikitxue nitzela, aittaaz-ta faten nitzen Vittorixara idixek saltzen. Kanbixau; idirik ikusten bazan, kanbixau. Baiña Santixauetan kendu ta [komenta] izeten zan, ba, tenporada bat “Ba! Oin hiru-lau hillebetian ez jaukau lanik etxien” eta orduen, ba, idixek saltzeko kondeziñuetan eozenak saldu eitten zittuen. Bai. Ta orduen tratuek plazan bertan eitten zien. Gaur, gaur iñun traturik-eta ez dot nik ikusi. Fan izen naz plazetara-ta hola noizbait lehen, oin ez, oin bapez, baiña lehenao-lehenao faten nitzen. Ba, noizbaitten ganauak [ferixara...] eta fan. Ta, ba, lehenao ikusten zan preziaua, “Hainbeste emongo dostat”, bestiak hainbeste eskatu, bestiek bestie... Oin... Edo igual-igual da txarrittan-ta. Fan Vittorixara ta zer da, ta telefonotik “trrrriiiiin” abisau ta “Hi, ze egunetan? Txarrikumak biher jittuu” ta “Urlixa egunetan fango nauk”, kotxian. Ta “rast!” kanbioiak Vittorixako lehenauko abiaziño-kanpo zaharrien. Ferixia itten zan gero. Ez eben ezebe ikusten. Txarri-ferixia edo zera eitten zan. Kanbioi batetik bestera kanbixetan bakarrik ikusten zebe ferixioi. Gu be faten gintzen, ba, orduen, ba, txarritxo bi edo hiru be igual hazi eitten gittuen etxien. Ta hazi ta, ba, [...] egoten zan. Ta hazi etxien ta fan ta, ba, hari abisau. Badakitzu, zera, kurriñerua. Hemen “kurriñero” esan ezkerro ha danak ezauketan daue.
- “El txurriñero”, bai, bai...
- “Kurriñerua”?
- Txarri-tratuen [dediketetan zan].
- “Txurriñero” esaten [...]
- “Txurriñero”?
- “Txurriñero”, bai.
- [Txarrixek] “los txurriñes”.
- “Txurriño”, ba, txarrikumak.
- [...] “txurriñes”.
- Hak kanbioikadak txarrikumak, berak esaten eben Valenzia aldera ta, kanbioiak baiña. “Zer da, hola...” ta “Joño! Kargauta... Kauen! Txarrikumak biher jittuat eta kargau dostak eta...”, “Ez, oindio etorriko dittuk hobak. Zuendako hobak etorriko dittuk”. Ta hak zela jakitten eben hemengo jentiek ze klase-modu edo zelakuek gure izeten zittuen, ta beste kanbioikada bat. Ta bat haundixe kargetako, hemen Araba [...] -eta ibiltten zittuenak, bi kamioi, haik txarrikumaz beteta, batera pasa ta aide! Ta neuk esan be “Baiña zela, zela hainbeste txarri?” ta “Ba! Honek salduta jaukat nik segittuan”. Bai.
- Txarrixak jaso ta...
- Bezeruek, bezeruek hartuta. Fan ta itxuria...

5. Politika

5.1. Herriaren aldaketa

- **Hizlaria(k)**: Plazaola Uribetxebarria, Marcelina; Zubillaga Zubizarreta, Victorino
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: LEI-002/004
- **Iraupena**: 0:00:25. **Hasi**: 00:05:20. **Bukatu**: 00:05:45
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane

- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939)
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- **Laburpena:** Gatzaga asko aldatu da. Gerra garaiko kontakizunak.

Transkripzioa

- Oseake, aldatu, urte gutxixen be asko aldatu da Gatzaga...
- Bai. Ta gero, ba, gerra-ostien kañonazuek eta hortiko eta hemetiko ta, ba, desbarajustie ta, ba, iñok arreglau ez ta honek etxe zaharrok danak behera. Enda abandonauta [euen herrixa].
- Bota ein zittuen.
- Baiña oin ya badoia apurtxoka-apurtxoka.
- Bai, bai, asko aldatu da. Bai, etxiek asko barriztau in die ta...
- Bai, horixe.

6. Herria, azpiegitura

6.1. Umezain; berrikuntzak etxean

- **Hizlaria(k):** Berrostegieta Goiburu , Felipa Saturnina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irizar Kortabarría, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref:** LEI-003/004
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 00:05:40. **Bukatu:** 00:09:05
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
Lanbideak » Neskameak
- **Laburpena:** Umezain egon zeneko kontuak. Berrikuntzak: komuna...

Transkripzioa

- Ta zure lana zan ume-zain?
- Bai, bai nik ez neuen eitten besterik. Ura, ura eruen. Orduen ez euen urik etxien, ezta? Eta itturrittik ura karriau. Ta umiek zaindu. Bestela nik ez neben eitten ez jatekorik eta ez erropak garbittu ta jabonau ta holan ezebe ez neuen eitten. Umia. Umia kalia ibili ta...
- Ta ura sarri ekarri bihar ala?
- Klaro! Etxien falta eitten dauen ura, ba, eruan ein biher. Baiña balde bi hartute eruten neuen ta tira! Gabien, gabien, umiek ohera faten zienien, orduen kargetan geuen urori hurrengo egunerako. Tiña zahar haundiren bat bete ta ala! Hemen be holaxen eitten geuen!
- Hemen be urik ez etxien...
- Ez geuken ta! Hor goiko [...], kamiño eskiñan dauen itturrittik, hor [krutza] bat dao, ezta? Ta ha bete ta hortik [askaurretik] zera, komunerako ura goixen. Komun gaiñien deposittua ein geuen. Ama difuntiak, ezta? "Hor depositto bat ein leike, ba. Lekua badao, [...] badao, ta. Ura, komunerako behintzat ura eukitteko. Jentia datorrenien be betik komunera zoiezen bakotxien baldekada ura botaten ibili barik". Ta, klaro, ba, ein euen. Ein otsen, deposittuori ein otsen, ezta? Ta ifiñi euen. Ta zapatuetan beteten geuen deposittuori aste guztirako. Aste guztirako egoten zan beteta. Handik karriau eta bete. Polea txikitxo bateaz igo ta tira. Eta behin andra bat akordau zan zer eitten ete [geren]; zetan, zapatu guztietan, zetan karrietan geuen hainbeste ur ta nora. Hemen oin [Arratekue] dauken

lekuen, ezta? Tabernia. Eta akordau zan, eta preguntau otsen amari: “Lola, zapatuetan zer eitten dozue uragaz?”.

- Zetako hainbeste ur? E?

- “[Hara, hainbeste ur karrio]” ta, ba, “Hauxe ta hauxe”, ta “Ez da egixa izango!”. Ta zer ein euen harek? Gure aittari enkargau horretaiko ziñezko tiñak. Ezta? Lehen horrek beste... zerak ardaia-ta gordeten dien moduko horretaikuek izaten zien pujatie eitteko, pujatie eitteko izaten zien, ezta? Ta aitta difuntuek ekarri euen etxerako ziñezkoa. Haundi bat. Ez dakit behien edo nun egongo dan. Bere grifo ta guzti. Eta enkargau otsen. Ekarrri otsen ta ifiñi euen kamaran ha. Ta ha beteten euen ta eurok be, ba, ure eukitten euen aste guztirako edo aste erdirako edo, ba, hutsiketan zanien, ba, [gero] bete. Eta holaxe.

- Oin baiño gehixao begiratu be eingo xakon urai...

- Bai. Konparaziño baten, fan ta txixa bakarrik eitten bazeuen... Baiña gorputzetik eitten bazeuen, ba, ura bota behintzat ta kitto.

- Gauza bat: ura ekarrittakuan zerbait esan biharrik egoten zan? Etxera ura ekarrittakuan...

- Ez.

- Ez zeuan ohitturarik hola...?

- Ez. Iturrira fan bihar nintzen, etxien ez geuken! Guk [...] ostian atia zela daukoun, ezta, hortik, kamiñua krutzau. Hori tabernako etxiori, eta kamiñua krutzau ta ya esta. Behetik karriau bihar bazan, bai, zerak [...ko] jonan horrek eskillara guztiok! Ta ekarten geuen, e! Ta holaxe. Gatzan bizimodua holaxe.

7. Familia eta harremanak

7.1. Harizko izarak

- **Hizlaria(k)**: Berrostegieta Goiburu , Felipa Saturnina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irizar Kortabarria, Mainer - Segura, Ainhoa
- **Erref**: LEI-003/010
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:17:40. **Bukatu**: 00:19:15
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
Lanbideak » Sastreak, jostunak
- **Laburpena**: Harizko izarak; linuzkoak...

Transkripzioa

- Gurien ama difuntiek harizkuek. [Haik, ez dakitzu? Haik] antiguakuek. Ta baeuezen aittak Madrirttik ekarritta hau sukaldia tapauko euen. Ta, klaro, bigaz hiru izara ein: zatixa kendu, ezta, ta bestiari zatixa ta erdittik josi ta ala! Beste bat. Ein gittuen, ezta? Ondion bi ein barik dauz, zeatik holakotxe bordaua dauke, e! Holakotxe bordauak. Eta... egongo zarie hor; batenbatek aprobetxauko [...], bestela, barriz, usteldu deitezela. Bai. baiña gurien harizko erropie gastetan zan, e! Gure ama difuntiak algodoizkorik ez euen; ez euen. Harizkuak. Berak ein zittuenak be dozenerdi harizkuek. Ta aittajauna difuntuek be harizkuek euen... Horrek sendotxuauek [...]

eitteko. Eta holaxe. Ba, gure bizimodue holaxen izan zan.

- Harizkue nik entzun inda dakot, baiña zer da...?

- “Hilo”.

- Bai, "hilo". Eta perkala ez da hari-mota... zer da? Ez da harixa?
 - Algodoa.
 - A! algodoiakin...
 - Algodoa.
 - A! Perkala be algodoia...
 - Perkalezkue bai, algodoia.
 - Algodoa da orduan...
 - Algodoa da, bai.
 - Ta linozkuak lehenaokuek izango zien?
 - Linozkuak... Horrek linozkuak badaoz... liñua fiñaua eta sendotxuaua eta gero hori beste piketan dauen hori. Halakorik ez euen gurian.
 - Horreik lehenaokuak...
 - Antiguakuak, bai.

7.2. Antzinako ezkontza

- **Hizlaria(k)**: Berrostegieta Goiburu , Felipa Saturnina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: LEI-003/011
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:19:15. **Bukatu**: 00:21:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
 Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- **Laburpena**: Ezkontzako arria. Kontu polita.

Transkripzioa

- Ni akordetan naz, hemengo kaleko bat euen, ezta, Arraten hor baserrixen ezkontuta. Ta, ba, klaro, ha ezkondu zaniengatik berak kontetan euen bere bodia zelan izan zan. Sarrittan.. Ta nik esaten notsen: "Casimira, kontaizu bodia", "Ba, ume, gari joten ni egon nintzonan atsaldeko bostak artien — hementxe, e! Hementxe—, eta atsaldeko bostetan hankak garbittu errekatxuen ta mosue ta baiezkie emoten fan nintzonan". Holaxen. Bai, zu. Baiña berak saladiu kontetan euen ta nik esan ta esan eitten notsen. Handik denporalditxo bat pasau ta "Casimira, kontaizu bodia". Kontauko euen bere bodiori ta... Bere aitta ta ama, ba, hemen, hau taberniau dauen lekuen bizi zien, ezta? Eta emon otsen zera, ba, eleixatik etorri zienien, pipar haundixak. Pipar gorrixak, ezta? Horretarikuak. Udie zan ta. Emon otsen. Arratera fan ta oillue euen afaitteko. Pentseizu, oillue saltsan ifinitta. Zopie ein ta afaitteko. Ta hurrengo egunien fan zien gaztañadixa ezauketan. Gaztañadixa euen hor kanposantu zerien, ezta, ta, ba, terrenuek ikusten, zertzuk zien baserrikuek. Eta gero astelehenien Arrikruzera garixa joten. Baiña saladiu kontetan euen berak! Eta lobak, Donostiko seme nausixenen neskattillak, etorten zien ta esaten otsen: "Amama, kontau bodia". Ulia hartzen otsen, "Amama, kontau bodia". Ba, beti bat. Beti bat. Bai. Ba, holaxen.

7.3. Aisialdia

- **Hizlaria(k)**: Berrostegieta Goiburu , Felipa Saturnina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa

- **Erref:** LEI-003/030
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:59:30. **Bukatu:** 01:02:45
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena:** Jai egunetan nora joaten ziren. Uda sasoian Landara joaten ziren erromeriara. Gatzagakoak iritsi arte ez zen hasten. Trenez Gatzagara; egiten zituzten tranpatxoak. Aramaitako kanpaiak jo orduko etxera.

Transkripzioa

- Dantzara-ta Landara faten zitzien?
- Bai. Udan Landara ta neguen herrixen. Landara. Landara fan atsalde... Bezperetatik urtenda, e? Zuk ez dozu jakingo bezperak zer dien...
- Ez.
- Oin ez dakit zela deiketan dotsen, "maitines" edo ez dakit zelan esaten dotsen. Atsaldien egoten zien eleixan, elizkizune, ezta? Bezperak. Errosarixua. Eta gero handik urten —nobenaren bat beuen, ba, nobenia eindda urten— eta Landara oiñez, miña atarata, aldatza gora hemen. Ta gero han Landan...

8. Ohiturak eta bizimodua

8.1. Kanpai klaseak

- **Hizlaria(k):** Berrostegieta Goiburu , Felipa Saturnina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref:** LEI-003/033
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 01:04:10. **Bukatu:** 01:06:15
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Kanpaiak
- **Laburpena:** Kanpai klaseak. Su-kanpaia. Hil-kanpaia.

Transkripzioa

- Kanpaiak diferentiek izeten da, ezta?
- Bai.
- Guk oin ez dou...
- Bai, sonido... sonido diferentie eukitten daue. Bai.
- Zenbat kanpai daz?
- E?
- Zenbat kanpai-tipo edo ze...?
- Asko egongo die. Segun...
- Aramaittakue...
- Aramaittakue, anjeluse esaten otsen erderaz, ezta? Aramaittakua. Goixien "el alba" edo gura dana goizeko bostetan-edo eguna zabalketan euenien ta holan illunketan euenien aramaittakuori.
- Ta anjelusa?
- Hamabixetan be joten euen.
- Baiña gero sua zanian be...?

- Baitta! Kanpaiak, su-kanpaia. Kanpaia joten ekitten otsenerako baekixen “Su-kanpaia da, edo basoren batek edo zerbaittek hartu dau sua”. Bai, bai, holaxe.

- Desbardiñak zian, orduan?

- Bai, bai, desberdiña. Ta hiru kanpa baiño ez geuen ikusten kanpantorrien ta diferente joten euen. Sonido diferente eukitten euen, bai.

- Eta joteko arduria norena?

- Sakristauena.

- Gero, hil-kanpaiek be diferenteiek?

- Bai, hil-kanpaiak be diferente joten daue.

- Segun ta nor dan hil dana?

- Ez, joten daue, ezta, honenbeste kanpa edo zera ta gero azkenien, gizezkie bada, “Klon-klon” birriten edo ez dakit zelan. Hortxe dao diferentzia, azkenengo kanpaletan, edo gizezkie edo emakumia zer dan.

- Eta umie bada?

- E?

- Umie bada?

- Umia bada, aingeruen kanpak joten dittue, kanpa alegriak. Holaxen.

- Guk [...] ez [dou] ikasi ta...

- Ez, guretako danak igualak...

- Klaro. Danak, klaro.

- Ta entzuten egon be ez gara itten...

- Baiña horrek badaki diferenteiak joten dauena.

- Bai, entzutia bai, baiña ezauketan kanpak...?

- Ez?

- Nik neuk ez, behintzet.

- Bai, igerten jakue.

- Hil-kanpak igual lentutxuauak dia, ez? Hil-kanpaiek...

- Bai, bai.

- Batetik bestera tartie ta... Ez?

- Ez dakit. Nik... Igerten jakue bai, zaratan igerten jakue.

8.2. Ospitalea; Dorletako eliza

- **Hizlaria(k)**: Berrostegieta Goiburu , Felipa Saturnina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: LEI-003/034
- **Iraupena**: 0:02:45. **Hasi**: 01:06:15. **Bukatu**: 01:09:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eraikuntza erlijiosoak
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak
- **Laburpena**: Ospitalea egon zen Gatzagan, Casa de Beneficencia. Dorletako eliza.

Transkripzioa

- Hemen Gatzan ospitala-edo auen, ezta?

- A! Bai.

- Ze...?

- Ospitala ez zan, “Casa de beneficencia” zan. Horrek Zalterain famelixiek itxittako dirua —pezeta bat igual izango zan, ezta? Baiña...— egunien, ba,

bat eukitteko, behintzat, jasoteko. Herriko... herriko semiek izan bihar auen, e! Eta egoten zan andra bat. Ez zan sekula iñor egoten ta andra bat eukitten euen, ba, etxie zainketako ta egoten bazan bateronbat ha zainketako ta zerien. Ehun pezeta hillien emoten otsen andriari.

- Hango lanak ittiarren?

- Hango gauzie ta etxia libre. Ezta? Ta egoten zan, bai. Nik ez neuen... Ni ez naz akordetan hori biatien, lehen egon zan biatien zera, Andra Marixen egon zan bietien ama egon zanik. Ezta? Ez naz akordetan, hareaz ez naz akordetan. Ez naz ez, ez, ez zertzen. Gero egon zana urte askuen egon zan, ba, hil arte. Alargune zan.

- Ospittala be bietien lana izeten zan ospittala zainketie?

- Ez. Ez. Hak andra bat page... andra bateri pagetan otsen ehun pezeta egunien. Ta zelan iñor ez zan egoten, ba, berak etxie libre eta, ba, gure dauena ein deixen. Bai. "Casa de beneficencia".

- Ta han ezer ez eukenei lagundu edo zer...?

- Ba, ez... Zuk... nezesidadien bazaz etxien ta ez bazauz ondo, ba, haraxe errekojidu, ezta? Ta, ba, han zuri, ba, jaten emon ta zainddu ta garbittu ta, ba, zer bat letxe. Bai. Residentzia...

- Etxeik ez badaukotzu, ba...

- Bai. Residentzia baten egotia letxe. Oin ezebez.

- Herrikue izan bihar.

- Herrikue, bai, herrikue izan bihar; kanpokue ez, herrikua, herrikua.

- Eta biatia zer zan?

- Ha zera, Andra Marixe zainketan euena, Ama Birjiñia zainketan euena. Bietia. Bietia esaten otsen ta!

- Ta haxe zan bere lana?

- Haxe bere lana: Andra Marixa garbi euki ta haxe. Baterenbat faten bazan atendidu ta horixe. Zabalik egoten zan lehen egun guztien egunero! Dorletako eleixie zabalik egoten zan lehen. Klaro, ha euen zainketako ta! Horreaittik.

- Ta hango garbittasunak edo...?

- Danak, danak.

- Eta ze izeten zan, moja bat edo ez?

- Ez, nik lehelengo ezautu nauena zera, ezkondu zan. Ezta? Gero ez, hau bigarrenau monja egon ta monjatatik urtendakua. Horixe. [Anita]. Ha hil zan ta akabo.

8.3. Dorletako beata etxerik etxe batzen

- **Hizlaria(k):** Berrostegieta Goiburu , Felipa Saturnina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref:** LEI-003/036
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 01:10:10. **Bukatu:** 01:11:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
- **Laburpena:** Dorletako beata etxerik etxe dirua batzen ibiltzen omen zen.

Transkripzioa

- Ta lehen bietiorrek eta dirue-ta batzen auen Dorletarako edo...?

- Bai, etxerik etxe ibiltten zien, ibiltten zan batzen. Ez dakit... Honeik hemengo Eskoitzako auzuna guztiok, ezta? Ta Atxabaltakuek be baietz uste 't, ez dakit, eta herrixen be bai batzen euen, ezta? Ta, ba, eukenak eukena emongo otsen. Txakur txiki bat baeueken, txakur txiki bat; ta haundixe baueken, haundixe.

- Eta dirue zetarako izeten zan?

- Ba, beretako.

- A! Beretako...

- Ez euken sueldorik eta. Ez euen orduen oingo moduen bodarik.

Badakitzu? Ta horrek be asko esan gura dau. Bodatan gutxi itxitta be batek igual ez dau itxiko, baiña beste batek [hiru bat lau] milla pezeta itxitta be...

Ta egon direz astiak hemen... Oin ez, oin ez dao hainbeste, e! Badaoz betik be bodak, baiña oin ez dao lehenaoko moduen. Oin hamar urte igual astien lau ta bost boda. Zapatuetan hiru boda? Kasi zapatu guztietan. Bai.

Badakitzu, haik bostehun pezeta itxitta be milla ta bostehun pezeta die.

- Ya... Baiña harek ez euken holako diruik eta batu ein bihar...

8.4. Sasimedikuak Gatzagan

- **Hizlaria(k)**: Berrostegieta Goiburu , Felipa Saturnina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: LEI-003/038
- **Iraupena**: 0:03:52. **Hasi**: 01:13:38. **Bukatu**: 01:17:30
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikiak eta sasimedikuak
Natura » Meteorologia
- **Laburpena**: Sasimedikuak Gatzagan. Sendabelarrak.

Transkripzioa

- Gatzan kuranderuek asko [zeren]. Danak zien kuranderuek, danak ekixen. Teresa "Bizimodusia" primerakua.

- Zein?

- Teresa "Bizimodusuena"... "Bizimoduena". "Bizimodu" esaten otsen.

Teresa euken izena, ezta? Eta andra txikitxo bat zan. Zuk orkatillia bihurketan bazeuen, ez dakit zelan demonio ifini ta bendetan otsun ta ondo jarten jatzun. Bai, bai. Eskue eukiko euen. Holaxe.

- Bat baiño gehixao zian, esan dozu?

- E?

- Kuranderuak bat baiño gehixao?

- Bat baiño gehixao egongo zien, baiña kalien zelan bizi zan, ezta? Ha zan gure kuranderiori. Danak ez zittuen jarten ondo, baiña...

- Ta bedarren barri ta be baekixen?

- Bai, bai, gure amari emon otsen errezeta bat bedarrakaz eitteko, ezta? Eta ez dao haren moduko pomadarik. Zuk itten doz... Nik oin hau erreta euki dot eta badaukat erreendako pomadia, baiña ez dotsat emun, zeatik betik uretan ta zera, baiña herida bat, infeziño bat, erlakistanak, ezta, urteten daue ha pomadia ifini, berotu eta... Gasan ifini ezkerro, ba, urtu eitten da ta jausi eitten da, ezta? Baiña harizko... harizko tela zatitxo baten ifini, ta gero ifini esparadrapue edo gura dana eta berde badao be zertu eitten dotsu, berak bigunketan dau eta atara eitten dau. Nik eindra dauket. Gauza bat falta dau, ez dakit zer ez notsen bota, bedar bat. Ez

neuken ta ez notsen bota. Ta gero argizarixa apur bat sobrau itten jaten ta gehitxuo bota notsen. Baiña bestela, ba: koipia, koipia edo sebua, ezta? Sebua hobeto ondion, ardixen zera hobeto bestelako koipia baiño. Koipia, kipula gorrixa... Kipuliak gorrixak izan bihar dau, e? Zurixak ez dau balixo. Gorrixa. Zartakiñan eindda soseguz, soseguz, soseguz. Egun guztien euki hor atzekaldien txapan ta ala ein dailla! Gero, koñak apurtxo bat, jabo... baiña jaboia txinbo edo lagarto zatitxo bat, bai, eta zera, ezti... ezti panala. Ezta? Argizaixa. Baiña erosi... dendan erosittakuak ez dau balixo, e? Zera, erliena izan bihar dau.

- Panalekue...

- Panalekua, bai.

- Zati bat bota, ezta? Eta horreitek uste dot diela: sebua, kipulia, eztixori eta ez dakit... Gero beste bedar bat botaten otsen, gurien ama difuntiek botaten otsen bedar bat be, berak esan otsen ta. Ezta? Ta ortuta fan ta ekarten euen baiña [...] ez nekixen zelakua zan. Esan neuen: "Hori gastau jatak". Ez dakit zenbat urtien euki neuen bost edo sei urtien holako fraskutxo baten, hortaiko maihonesa horreik frasku txikitxuek saltzen zittuen, ba, lehenau? Oin ez daue saltzen, oin potietan saltzen daue, baiña hor fraskuen, ezta? Eta, zu, halakotxe fraskutxo baten emon ama difuntiek eta, baiña igual hogeitien eukiko neuen, e! Eta azkenengoko hondarra gastau zanien esan neuen: "Ba, ein ein biharko dot". Ba, [horixeaz ein], primeran. Nik edozein herida badaukat "ranba" ifintten dot eta ez daukat gehixao kurarik ein biharrik, haretxeaz primeran osaketan da. Ta pusa badaukatzu atara eitten dotsu.

- Zikiña atara?

- Bai. Eta gero, ba, bera apurtxuka-apurtxuka sikaketan da.

- Eta igual balixo dau erriendako ta...?

- Klaro! Herida guztiendako.

9. Iritziak

9.1. Sendagilea Gatzagan

- **Hizlaria(k):** Berrostegieta Goiburu , Felipa Saturnina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irizar Kortabarría, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref:** LEI-003/040
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 01:18:50. **Bukatu:** 01:19:58
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena:** Sendagilea Gatzagan. Sasimedikoak.

Transkripzioa

- Medikuek-eta, bestela, hemen ez zan...?

- Bai, medikue egoten zan.

- Bazan?

- Bertan egoten zan medikua orduen, ni umia nitzanien, gaztia nitzenien, bertan. Gero ez. Gero etorri zan bat, ez dakit nungua zan bera, gero Eskoitzara fan zan, ezta? Ta hil da; gero Donostiara fan zan ta hil zan. Ezta? Don Domingo. Eta ha hemen tabernan egoten zan apopillo. [Lorentzuena] zan tabernia, ezta? Ta apopillo han egoten zan. Baiña gau ta egun egoten zan medikua fijo Gatzagarako. Gero, ba, ekin otsen bati ez dakit zer ta best... ta gero kitto.

- Gero kuranderiena fan bihar...
- Kuranderiana medikue euenien be bai!
- A, bai, e? Harekin fede gehixao?
- Sarritan bai, segun zetarako.
- Bai, lehenauko erremedixuak asko ta asko...
- Bai, naturalauak.
- Jakin ein bihar ze bedar ta zela...

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Rekadista lanaren inguruko zehaztasunak (LEI-001/018)

Rekadistaren lanaren ingurukoak: zenbatero egiten zituen bideiak; jaiegunik ez...

2. Garraioak: bizikleta; trena... (LEI-001/019)

Bizimodua asko aldatu da. Eskoriatzara, inguruko herrietara bizikletan joaten ziren; denborara, motorrean. Trenaren ibibidea, geltokiak. Toponimia.

3. Inguru hartan egondako tren istripua (LEI-001/020)

Trena deskarrilatu zeneko azalpenak. Duela 40 urte inguru gertatutako istripua. Handik denbora batera trena kendu zuten.

4. Basoko lana: zuhaitzak trontzarekin botatzen zituzten (LEI-001/031)

Basoan lanean. Zuhaitzak trontzarekin botatzen zituzten. Arrasaten erositako trontza.

5. Batzoki zaharra (LEI-002/006)

Batzoki zaharra. Denda.

6. Eskola gutxi; abarkagilea maisurik onena (LEI-002/007)

Eskola gutxi. Abarkagileak erakutsi zion dakien guztia.

7. Parrokoari lagundu eta eskolara berandu (LEI-002/008)

Egunero mezara parrokoari laguntzen. Eskolan haserre berandu heltzearren.

8. Mutikotako kontuak: basoko lana; eskola (LEI-002/009)

Mutikotan basoan lanean. Nordebizi. Dorleta ingurua. Lana amaitu ostean abarkagileak klaseak ematen zizkion.

9. San Juan bezperan soroen bedeinkapena (LEI-002/011)

San Juan bezperan abade bi ibiltzen ziren soroak bedeinkatzen. Bedeinkapena, oilasko pare ederraren truke. Aitajaunaren iritzi-aldaketa.

10. Ohitura zaharrak: kanpai-garia (LEI-002/012)

Kanpai-garia. Ohitura zaharrak; etxez-etxe eskean. Bedeinkapenak; oilaskoak.

11. Erlijio gaietan aldaketa ugari (LEI-002/013)

Erlijioaren inguruko gaietan gizartean eman den aldaketa. Abadeen janzkera aldaketa.

12. Erromeriak inguruko auzoetan (LEI-002/014)

Erromeriak Marulandan; Landan... Soinujoleak. Erromeria eguna nolako izaten zen: mezara; itulan egin; arrosarioa; danbolina... Landako erromeria.

13. Erromeria kontuak; inguruko herrietako gazteekin harremana (LEI-002/016)

Arabako herritarrekin harremanak nolakoak. Bolatokietan; erromeriatan elkartzen ziren. Landako erromeria oso handia. Aramaitakoan, ilundu aurretik, etxera. Gauzak erabat aldatu dira.

14. Sorginen inguruko kontuak (LEI-002/017)

Sorginen inguruko ipuinak. Aitajaunak zekizkien sorgin-ipuinak. Toponimia: Sorgin-bolalekua. Kontu zahar bat gogoan du.

15. Umetako jolasak; lagun-taldea (LEI-002/019)

Umetako jolasak: kaka-torreka; lau-kantoeka. Lagun-taldea.

16. Boleta-jokorako zaletasun handia (LEI-002/020)

Boleta-jokoa. Diru asko jokatzen zen. Zaletasun handia. Dirua; ardoa eta ogia ere jokatzen ziren.

17. Boxeoa ikustera Oñatira (LEI-002/022)

Boxeoa ikustera Oñatira joan ziren behin. Paco Bueno boxeolaria. Gatzagatik bizikletan gauez Oñatira.

18. Gaztetan bizikletarekin batera eta bestera (LEI-002/023)

Gaztetan bizikletan inguru guztietara. Gatzagako txirrindulari ezaguna. Lehenagoko bizikletak nolakoak.

19. Lagun taldea bizikletan (LEI-002/024)

Lagun taldea bizikletan hara eta hona. Lehenago bideak txarrak ziren; baina orain taldean joatea arriskutsua.

20. Gerrako kontuak (LEI-003/013)

Gerra sasoiko kontuak. Gatzagara joan zen jende asko gosea kentzera.

21. Gerra garaian, Araban (LEI-003/015)

Gerra sasoiaren, Araban egon zen etxe batean josten.

22. Josteko makina (LEI-003/017)

Alfa makinarekin lan egindakoa gaztetan. 500 pezeta ordaindu zuten.

23. Gerra Zibila irten zeneko eguna (LEI-003/019)

Gerra Zibila irten zeneko eguna.

24. Kartzelako kontuak (LEI-003/020)

Kartzelan egon zen 22 hilabetez gurasoekin batera. "Begi guztiek ez daue batera negar egitten". Kartzelako kontuak.

25. Kartzelatik Gatzagara itzulera (LEI-003/021)

Kartzelatik irten zenean, Gatzagara itzuli eta beraien etxea beste batzuen esku zegoen. Etxea berreskuratzeko egin behar izan zituztenak.

26. Kartzelatik irten zireneko kontuak (LEI-003/023)

Kartzelatik itzultzean, gorriak zirelako, 100.000 pezeta ordaindu behar izan zituzten.

27. Gatzagatik kartzelara eramandako mutilak (LEI-003/025)

Anaiak eta Gatzagako beste mutil batzuk kartzelara eraman zituzten; baina, Oreja politikariaren laguntzari esker, etxera itzuli ziren. Gerrara eramandako beste mutil batzuk nola hil zituzten.

28. Gerra garaian desagertutako baserritarra (LEI-003/026)

Baserriko emakume bat gerra garaian desagertu zenekoa.

29. Gerrako kontuak (LEI-003/027)

Aitaren bila etorri ziren bide bazterrean hiltzeko asmoz. Horrelakoak sarri gertatzen ziren; zergatiak (gorrotoa, besteak beste).

30. Hauteskundeak (LEI-003/028)

Gerra aurretik hauteskundeak egon ziren. Abertzaleen mitinak (Monzon, Bergaretxe, etab.). Batzokia. Arrasateko karlisten mitinean gertatutakoak.

31. Giro politikoa (LEI-003/029)

Hauteskundeetan, karlistek baserritarren botoak erosten zituzten 5 pezetaren truke. Aita errepublikanoa; aitajauna liberala. Egunero egunkaria erosten zuten (La Gaceta del Norte, La Voz de Guipuzcoa, El Liberal).

32. Kanpai klaseak (LEI-003/032)

Kanpaien inguruko azalpenak. Arrasaten egon zeneko kontuak; ostiral guztietan arratsaldeko 15:00etan hil-kanpaia jotzen zuten.

33. Sorgin kontuak; kaletarrak eta baserritarrak (LEI-005/003)

Sorgin kontuak. Baserritar eta kaletarren arteko harremanak. Umetan, ez ziren elkarrekin ibiltzen.

34. Marulandako erromeria (LEI-005/004)

Koskortutakoan, Marulandara joaten ziren. Abadeen debekuak. "Infernuko hauspoa".

35. Maiatzeko loreak; umetako bihurrikeriak (LEI-005/005)

Atxorrotzeko jaieguna; maiatzeko loreak. Umetako okerkeriak.

36. Gasteizera prozesioa ikustera; Arrasateko feria (LEI-005/006)

Eskoriatza eta Aretxabaletara joateko ohitura gutxi zuten. Gasteizera berriz, urtero joaten ziren. Gasteizera Prozesioa ikustera joaten ziren gauez. Baserritarrak ostera, Arrasatera joateko joera izaten zuten, feriara. Autobus txiki bat jartzen zen horretarako.

37. Familiako ekonomia (LEI-005/008)

Etxeko diruak amak gordetzen zituen. Aita, ama baino eskuzabalagoa zen umeein.

38. Emakumeen egoera gizartean (LEI-005/009)

Emakumeak ez ziren tabernetan sartzen. Emakumeen bizimodua. Arropak non garbitzen zituen amak. Dorletako urak gatza zuela eta ez zitzaion gustatzen bertan arropak garbitzea. Han inguruan iturburu txiki batetik "uratza" irteten da. Lehenagoko sineskerak.

39. Oinetakoak: abarketak (LEI-005/010)

Oinetakoak. Abarketak eta jai egunetan zapatak erabiltzen zituzten. 12 urterekin aitagorri zizkion lehenengo tenis-zapatilak. Bertan bazeuden abarkagileak ere.

40. Orrazkera kontuak (LEI-005/011)

Orrazkera kontuak. Umetan kopetak eta trentzak erabiltzen zituzten. Ile-apaindegira joateko, Gasteizera. Ilea nola zaintzen zuten. Buruko zapia, baserritar nagusiek erabiltzen zuten. Mutilek ilea beti motz erabiltzen zuten. Txapela ume-umetatik. Barberoa.

41. Lardero eguna: umeak eskean etxez etxe (LEI-005/015)

Umetako jolasak. Gaueko eskola. Eskean irteten ziren neska-mutilak: "kantau ala erreza?". Toponimia. "Lardero" kanta. Panpota, ogi berezia. Jai eguna nola ospatzen zuten.

42. Lardero eguna Gatzagan: ospakizunak (LEI-005/016)

Jai eguna nola ospatzen zuten. Maistrarekin bazkaltzen zuten. Tanbolinteroei dirua banatzen zitzaien. "Lardero" eguna.

43. Lardero eguna Gatzagan: ohitura zaharrak (LEI-005/017)

Lardero eguna. Ohitura hori amaitu da. Eskuan ziri bat eramaten zuten; burduntzia. Poltsero, burduntzero; zesteru.

44. Baserritarren janzkera (LEI-005/018)

Baserritarrak nola janzten ziren. Gona eta "txanbria"; amantala. Kotrseak erabiltzen zituzten. Luto kontuak. Zenbat urtetan gorde behar izaten zen lutoa.

45. Gorpuzti eguneko ospakizunak (LEI-005/019)

Gorpuzti egunean kaleak apaintzen ziren. Arkuetan aldareak ipintzen ziren. Prozesioak. "Ixia" belarra botatzen zuten. Herriko kaleak.

46. Bataioaren inguruko ohitura, usadioak (LEI-005/024)

Bataioen inguruko azalpenak. Ahal izanda umea jaio eta hurrengo egunean bataiatzen zen; horrela indulgentziak irabazten ziren. Ama teilapetik irten gabe egon behar zen elizara sartu baino lehen.

47. Bataioaren inguruko ohitura, usadioak (LEI-005/025)

Bataiatu gabeko umea hilez gero, "linbo"ra joaten zela esaten zen.

48. Sorgin kontuak Gatzagan (LEI-005/027)

Sorgin kontuak. Anbotoko Mari; Galtzagorriak. Aita zenak behin laminak ikusi omen zituen; orduko pasadizoa. Toponimia.

49. Aitaren ibilerak: Madrilera sukaldaritza ikastera... (LEI-005/030)

Aitaren ibilerak. 13 urterekin aitajaunak Madrilera bidali zuten sukaldaritza ikastera. Hango bizimodua ez zitzaion gustatu eta hona itzuli zen arotz lana ikastera. Apotzagatik Eibarrera, handik Bilbora eta berriz Gatzagara itzuli zen.

50. Neskame Aetxabaletara (LEI-005/031)

Ama 13 urterekin Aetxabaletara bidali zuten, karteroaren etxera neskame bezala lan egin zezan. Handik Bilbora joan zen eta bertan ezagutu ziren senar-emazteak.

51. Sorgin kontuak; laminak (LEI-005/032)

Aitak ehizarako zaletasun handia. Lamina ikusi zueneko.

52. Mutilen okerkeriak (LEI-005/033)

Mutilak irrintzika ibiltzen ziren. Ezagun baten inguruko kontuak. Mutilen okerkeriak.

53. Gatzagako kaleetan abereak (LEI-005/036)

Abereak basora eramaten ziren. Etxeko kaleetan ere abereak ibiltzen ziren.

54. Ehiza-txakurra (LEI-005/038)

Ehiza-txakur baten inguruko kontuak.

55. Tanbolineroak irakurtzen zuen Bandoa (LEI-005/039)

Herriko bandoa tanbolineroak irakurtzen zuen jendea mezzatik irtendakoan.

56. Mezaren inguruko kontuak; abadeak, meza-mutilak... (LEI-006/002)

Auzoetako eliza edo ermitek ez zuten abaderik. herriko abadea joaten zen bertara meza ematera. Garai batean herriko elizan 3-4 abade egoten ziren. Monagiloak ere beste horrenbeste.

57. Sorginen beldur (LEI-006/004)

Astaisolo (?); sorgin-lekua. Anbotoko señoria. Horren inguruko kontuak. Laminak.

58. Gatzagan eman diren aldaketak (LEI-007/004)

Aitajaunak Karlistadetan parte hartu zuen. Gatzaga asko aldatu da; erdigunean egin diren berrikuntzak. Frontoia.

59. Gatzagan dauden arkuak; prozesioak (LEI-007/005)

Kale izenak. San Inazio arkuak. Antzina, prozesioetarako arkuak garbitu egiten ziren; itxi ere egiten zituzten. Arkuak garbitzen zeintzuk ibiltzen ziren. Erlijioak lehenago zuen indarra galduz joan da. Arku guztietan aldareak ipintzen zituzten.

60. Gatzagako erdigunea: kaleak, arkuak... (LEI-007/007)

Gatzagako erdigunean egon diren aldaketak. Arkuak herri guztian zehar; non zeuden; santuaren izena. Plaza, arkupea, frontoia...

61. Leintz Gatzagako arkuen inguruko azalpenak (LEI-007/008)

Antzina arkuak itxi egiten zituztela aipatzen zuen bere aitonak.

62. Leintz Gatzagako perratokia (LEI-007/009)

Leintz Gatzagako erdigunea nola aldatu den. Perratzailea; perratokia.

63. Herri-basoak; esparrua (LEI-007/010)

Etxe gehienek ortu txiki bat ere izaten zuten; askotan, baita abere batzuk ere. "Venta Fría" Behiak ibiltzeko esparrua; dena itxita zegoen. Behiak udalean erregistratuta egon behar izaten ziren. Herri-basoak. "Partizalak".

64. Etxe gehienetan ortua eta abereak (LEI-007/011)

Behorrek non egoten ziren negu aldean. Toponimia; inguruko mendiak. "Venta Fría" Herriko esparrua. Gatzagan, baserri tankerakoak ziren etxe gehienak. Ortuak, soroak. Urte guztirako garia, artoa, etab. ereiten zuten. Etxerako egurra.

65. Umetako lanak baserrian (LEI-007/012)

Behiak esparruan ibiltzen ziren eta bakoitzak bere "arrana" izaten zuen (zintzarria). Ume-umetan baserrian egiten zituzten lanak: itulan egin; eskolara joan aurretik behiak esparrura eramane. "Petriña".

66. Euskara batua eta euskalkiak (LEI-007/013)

Euskara batua vs. euskalkiak. Irakurtzeko zaletasun handia.

67. Euskalkia (LEI-007/014)

Euskalkia; lexikoa. "Txiliña".

68. Zintzarrien inguruko azalpenak (LEI-007/015)

Ardientzat inguru egokia. "Arrana" zeini ipintzen zitzaion; ardi edo behi okerrenari, handiena. Zintzarriak non erosten zituzten. Zintzarrien inguruko azalpenak.

69. Gatzagako perratzailea (LEI-007/016)

Gatzagako perratzailea, Anselmo Galdos. Gerora Aretxabaletara joan zen. Bide ondoan zuen perratokia; idiak bertara eramaten zituzten.

70. Gerra garaian erre zen baserria (LEI-007/017)

Agarre baserria gerra garaian erre zeneko kontuak.

71. Ermandadea; idiak baserri gehienetan (LEI-007/018)

Perratokia; perratzailea Gatzagan. Idiak baserri gehienetan; garai batean ermandadean 24 idi-pare egon ziren. "Maiordomuak", idiak ikuskatzen.

72. Ermandadearen inguruuko azalpenak (LEI-007/019)

Ermandadearen inguruuko azalpenak. Baserri guztiak sartzen ziren orduan sozietate horretan.

73. Ermandadea; herriko marka (LEI-007/020)

Ermandadearen inguruuko azalpenak. Etxerik etxe ibiltzen ziren ermandadeko arduradunak. Herriko marka, "S" bat zen (Salinas).

74. Bi ermandade Leintz Gatzagan (LEI-007/021)

Gatzagan bi ermandade zeuden. Olaun aldekoa eta Goierrikoa. Urtero-urtero "maiordomua" aldatzen zen.

75. Suaren aurkako aseguruia (LEI-007/022)

Suaren aurkako aseguruia, aitajaunaren sasoitik bai behintzat.

76. Argindarra; ur-korrontea (LEI-007/026)

Argindarra betidanik ezagutu du etxean. Marulanda errotatik eta gatz fabrikatik ere ekartzen zen indarra. Ur-korrontea.

77. Ur-korrontea baserrian (LEI-008/001)

Ura iturritik ekartzen zuten; abereentzat ere ura ekarri behar izaten zuten. Gerra ostean jarri zuten ur-korrontea etxean. Urte batean izotzak herriko ur-hodiak apurtu zituen.

78. Iturburua non zegoen; toponimia (LEI-008/002)

Okondo inguruan dagoen iturburutik ekartzen zen hasieran ura. Toponimia. "Ittur-santu".

79. Errekara joaten ziren arropak garbitzera (LEI-008/004)

Etxean ur korronterik ez eta garbitokira joan behar izaten ziren. Errekan presa bat zegoen eta bertan arropak garbitzeko harriak ipinita zeuden; arropak idiekin eta gurdiaekin eramaten zituzten. Garbitokien kokalekuak.

80. Deba erreka I (LEI-008/005)

Errekaren izena. Deba errekaen sorrera; iturburuak. Toponimia; hidronimia. Deba errekaen egoera.

81. Deba erreka II (LEI-008/006)

Deba errekaen sorrera; iturburuak.

82. Inguruan zeuden errekek (LEI-008/007)

Erreka txikiak inguruan. Toponimia; hidronimia. Ebro; Deba.

83. Presa ugari errekan (LEI-008/008)

Errekan zeuden presak. Presen kokalekua; izenak...

84. Lixiba; ehuna (LEI-008/009)

Lixibaren inguruko azalpenak. Ehunezko izarak. Amandreak gauez egiten zuen haria; haria egiteko erabiltzen ziren tresnak.

85. Emakumeak gorutan (LEI-008/010)

Lihoaren inguruko lanak; emakumeak elkartu egiten ziren lihoa (linua) kardatzeko. Amandreak gauez egiten zuen gorutan.

86. Lihoa (linua); ehuna (LEI-008/011)

Ehulea. Lihoaren inguruko lanak.

87. Ehunezko arropak (LEI-008/012)

Ehunezko arropak; izarak.

88. Antzinako bizimodua (LEI-008/013)

Bizimodua erabat aldatu da; gaiaren inguruko gogoetak.

89. Artilezko galtzerdiak (LEI-008/015)

Artilearekin haria egiten nola ikasi zuen; galtzerdiak. Gerra garaiko kontuak.

90. Artilearen garrantzia (LEI-008/016)

Artilearekin haria nola egiten zuen. Artilearen garrantzia garai batean.

91. Abarkak; abarka-sokak (LEI-008/018)

Abarka-sokak, "trallak", ile beltzarekin egiten ziren. Gerra osteko abarkak, kalitate txarrekoak. Umetan gomazko abarkak erabiltzen zituzten. Larruzko abarkak.

92. Abarkagintza (LEI-008/019)

Abarkagintza.

93. Antzinako arropak (LEI-008/020)

Umetan erabiltzen zituzten arropak. Gizonezko eta emakumezkoen arropak. Gerrikoa. Basoko lana. Gasteizko santugilea.

94. Emakumezkoen arropak I (LEI-008/021)

Emakumezkoen arropak.

95. Emakumezkoen arropak II (LEI-008/022)

Emakumezkoen arropa; gizakumeena. Lehenagoko bizimodua.

96. Gatzagako auzoak (LEI-008/024)

Gatzagako auzoak zeintzuk diren aipatzen du: Goierri; Olaun. Dorleta.

97. Inguruko auzoekin harremana I (LEI-008/025)

Inguruko auzoekin harremana nolakoa den azaltzen du: Marin; Marulanda, Zarimutz... Lehenago bertako umeak Gatzagara joaten ziren eskolara.

98. Inguruko auzoekin harremana II (LEI-008/027)

Inguruko auzoekin harremana nolakoa den: Marin; Marulanda, Zarimutz... Lehenago bertako umeak Gatzagara joaten ziren eskolara.

99. Basoak; herri-basoak (LEI-008/028)

Basoak nolakoak ziren. Egun ere herri-basoak dira gehienak.

100. Basoko animaliak (LEI-008/029)

Basoko animaliak: basurdeak...

101. Basurdearen inguruko kontakizuna (LEI-008/030)

Basurde bat gertutik ikusi zueneko pasadizoa.

102. Basoaren garrantzia; herri-basoak (LEI-009/007)

Basoaren garrantzia. Iratara joaten ziren; egurretara... Herri-basoak dira inguruan daudenak. Egurra behar eta nahi izanez gero, zeintzuk dira eman beharreko urratsak: udalean izena eman... Betiere basoa zainduta eta garbi mantentzen dute. Ira-sailak, baserri bakoitzak bereak ditu.

103. Gatzagako auzuneak; ermandadea (LEI-009/008)

Gatzagako auzuneak: Goierri, Olaun aldea... Ermandadean, auzune bietako baserri guztiak batzen ziren. Urtean behin elkartzten ziren baserritar guztiak idiekin (uztartuta gainera) plazan. "Zamarretakuak".

104. Idien garrantzia baserriko lanetan (LEI-009/009)

Antzina, baserri guztietan egoten ziren idiak; idiekin lan egiten zen soroan. Gerora, idiak kentzen hasi zirenean, behiekin hasi ziren lan egiten. Idiak asko zaintzen ziren: lana amaitu ondoren mantatu egiten ziren; jaten ere behiei baino gehiago ematen zitzairen, e.a. Idiak nola uztartzen diren. Akulua.

105. Idien inguruko azalpenak (LEI-009/010)

Idien inguruko azalpenak. Garrantzitsuena, idi mantsoak izateak.

106. Trenbidearen garrantzia inguruan; baserritarrak Gasteizera feriara (LEI-009/011)

"Kaparrena" baserrian ateratako produktuak, etxerako izaten ziren. Baina baserritar asko gaztainak, sagarrak saltzera Gasteizera joaten ziren. Trenaren garrantzia. Rekadistarik ez du ezagutu.

107. Inguruko herrietatik Gatzagara jai egunetan (LEI-009/012)

Inguruko herri eta auzoekin harremana nolakoa zen. Igande eta jai egunetan, Marin eta Marulandako gazte guztiak Gatzagara joaten ziren. Gatzagako jai nagusiak irailaren 8an dira. Betidanik egon izan da ohitura Otxandiotik bertara joatekoa, eta oraindik ere mantentzen da. Gatzagako soinujolea.

108. Arropen inguruko azalpenak; jostunak (LEI-009/013)

Nesken arropak. Jai egunetan zer edo zer dotoreago janzten ahalegintzen ziren. Arropak estreinatzeko egunak zeintzuk izaten ziren. Arropak batez ere neurrira egiten ziren; jostun asko inguruan. Marulandan jostun ezagunak. Guraso eta nagusien arropak. Buruko txapela. Ehunezko arropak bere akordurako ez ziren erabiltzen.

109. Baserriaren egitura (LEI-009/014)

Baserriaren egitura: beheko sua; alkobak. Jatekoa nola prestatzen zen.

110. Elikadura baserrietan; barazkiak (LEI-009/015)

Elikadura baserrian. Zer gosaltzen zuten. Artoa eta esnea; morokila... Morokila nola egiten den azaltzen du. Aia. Jatekoa astegunetan eta jai egunetan. Ortuan zer ereiten zen. Tomatea, letxuga.

111. Jai egun edo ospakizunetan zer jaten zen (LEI-009/016)

Jaiegunetan zer jaten zuten. Urtebetetze egunean zerbait berezia prestatzen zen. Ardoa zahagietan ekartzen zen baserrietara. Gure Ametsa parean aduana egoten zen.

112. Doktrina; bezperak (LEI-009/018)

Doktrina, abadearekin ikasten zuten. Eskolako kontuak. Igande arratsaldetan bezperatara joatea derrigorrezkoa zen; organista, Rafa Elejalde.

113. Erlijioaren indarra gizartean; garizuma (LEI-009/019)

Jaunartzearen inguruko azalpenak. Soineko berria egin zioten; oraindik gogoan du nolakoa zen. Jaunartzea egin ondoren konfesatzera joan behar izaten ziren. Abadeak galdera ugari egiten zituen; etxeko berri jakiten zuen bertan. Garizuman bulak erosi behar izaten ziren.

114. Abadeari errespetu handia (LEI-009/021)

Bulak erosten zirenean zerbait ematen zitzaion abadeari. Errespetu handia izaten zitzaion abadeari; aldamenetik pasatu beharrez gero, belauniko jarri behar izaten ziren; e.a. Berorika egiten zitzaion abadeari.

115. Erdaraz ikastera Arabara (LEI-009/022)

Gurasoak erdaraz gaizki konpontzen ziren. Garai batean mutilak Araba aldera joaten ziren erdaraz ikastera.

116. Feria ezagunak inguruan (LEI-009/023)

Baserritarrak feriatara joateko zaletasuna. Tratulariak: arropak, makila. Feria ezagunak Arrasaten, Gasteizen. Emakumeak ez ziren ferietara joaten.

117. Gizon eta emakumeen bizimodua (LEI-009/024)

Gizonezkoen eta emakumeen bizimodua desberdina.

118. Bizimodu aldaketa (LEI-010/003)

Gizarte eta bizimodu aldaketa. Ezkontzak nolakoak izaten ziren; ohitura zaharrak.

119. Ur-korrontea; arropa-garbitzea (LEI-010/010)

Ur-korrontea etxean. Arropak non garbitzen zituzten; "pujetia".

120. Argindarra baserrian (LEI-010/011)

Argi-elektrikoa beti ezagutu du baserrian. Arrueren indar-etxea.

121. Marulanda edo Gaztainaduiko errotara (LEI-010/012)

Marulanda edo Gaztainadui auzoetako errotara joaten ziren.

122. Ogia nola egiten zen (LEI-010/014)

Ogia nola egiten zen azaltzen du; lexiko interesgarria.

123. Leintz Gatzagako mugan mikeleteak; estraperloa (LEI-010/015)

Leintz Gatzagako mugan mikeleteak zeuden; bertan zegoen aduana. Estraperlo garaia ez zuen zuzenean ezagutu, baina istorio asko entzun ditu.

124. Baserrietan goserik ez (LEI-010/016)

Gerraostea gogorra izan zen; dena dela, baserrietan ez zen goserik pasatu. Gerra garaian bera umea zen, baina etxean entzundako zenbait gauza gogoratzen ditu.

125. Argizaria zertarako erabiltzen zen (LEI-010/017)

Baserri batzuetan erleak izaten zituzten. Argizariaren garrantzia; zertarako erabiltzen zen.

126. Herriko jaietan gonbidautzak (LEI-010/018)

Herriko jaietan gonbidautzak egoten ziren.

127. Garai batean baserri gehienetan errenteroak (LEI-010/019)

Baserri ingurua Leintz Gatzagan. Garai batean baserri gehienak errentan hartutakoak ziren; etxejabe handiak. Elizarentzat utzitako baserriak.

128. Baserriko errenta ordaintzeko moduak (LEI-010/020)

Baserriko errenta nola ordaintzen zen kontatzen du; modu desberdinak zeuden ordainketa egiteko. Kapoiak nola hazten ziren; azalpen interesgarriak.

129. Abadeari oilaskoak, soroak bedeinkatzearen (LEI-010/021)

Abadearen harremana baserriarekin. Soroak bedeinkatzera joaten zenean, oilaskoak ematen zitzaizkion. Gaiarekin lotutako anekdota.

130. Erramu egunean gurutzeak bedeinkatzen ziren (LEI-010/022)

Erramu egunean gurutzeak bedeinkatzeko ohitura zegoen; ur bedeinkatua.

131. Kanpai ezberdinen esanahiak (LEI-010/024)

Kanpai bereziak egoten ziren sua zegoenean; su-kanpaiak. Hil-kanpaiak; desberdinak izaten ziren hildakoa gizona edo emakumezkoa zenean.

132. Auzoetako diru-batzeak (LEI-010/025)

Baserriren bat erretzen zenean, ingurukoak dirua batzera irteten ziren. Santa Ageda eguneko diru-batzea.

133. Santa Ageda eguneko ospakizunak (LEI-010/026)

Santa Ageda eguna nola pasatzen zuten: txokolatea; dantza; neska-laguntzea... Aratusteetan ez zuten mozarrotzeko ohiturarik.

134. Kaleko eta baserriko umeak elkarrekin (LEI-010/027)

Umetako ibilerak; baserrikoak eta kalekoak denak elkarrekin ibiltzen ziren.

135. Dorletara joateko ohituraren jatorria (LEI-010/028)

Dorletara joateko ohitura noizkoa den kontatzen du.

136. Arantzazuko fraideak eta Dorletako beata etxerik etxe (LEI-010/029)

Arantzazuko fraideak arrautzak eskatzen joaten ziren baserriz baserri. Dorletako beata ere etxerik etxe joaten zen eskean.

137. Nesken artean dotoreagoa zen gaztelaniaz hitz egitea (LEI-010/030)

Euskararen inguruko gogoetak; inguruko herrietan antzera egiten dute. Euskararen erabilera; hitanoa... Lagunartean nola hitz egiten zuten; nesken artean gaztelaniaz egitea dotoreagoa zen.

138. Antzinako bizimoduaren gaineko gogoetak (LEI-010/032)

Antzinako bizimoduari buruzko gogoetak; familia giroa.

139. Aurrerakuntzak baserri munduan (LEI-012/001)

Don Valentín Zamora. Baserri munduan aurrerakuntza batzuk sartzea nahi izan zituen. Seguruak baserrian. Don Cruz Abarrategi buru zela, auzo desberdinetako baserritarrak batu eta seguru bat jarri zuen. Suaroa. Agrariako segurua. Fraisoro. Ermandadeak nola funtzionatzen zuten.

140. Baserri inguruan eman diren aurrerapenak azkenengo hamarkadetan (LEI-012/002)

Don Cruz Abarrategi, Bolibarko abadea. Baserri munduan aurrerapen asko bultzatu ditu: telefonoak auzoetan... Lehenago telefonoa Estazioan zegoen bakarrik.

141. Apotzaga auzoko abadeak auzoaren alde egindakoak (LEI-012/003)

Don Anastasio Otadui, Apotzaga auzoan abade egondakoak ere gauza asko egin zituen auzoaren alde: eliza konpondu; kanposantua... Maringo bidean zegoen gurutzeta, Apotzagako kanposantuan jarri zuen.

142. Marin auzoa: trenbidearen garrantzia; irakaslearen eragina (LEI-012/004)

Zabale baserrian jaiotakoa (Marin auzoan), 1938an. Marin auzoa nolakoa zen. Eliza, eskola, abade-etxea, trena. Trenak izan zuen garrantzia Marin auzoan. Oso irakasle ona izan zuen, Conchita Medrano. Eragin handia izan zuen auzoko bizimoduan. 12 urtetan egon zen bertan.

143. Auzo-eskolako irakaslea eta hizkuntza (LEI-012/005)

Eskolan euskaraz hitz egitea debekatuta zegoen gerra osteko urteetan, baina maistrak ez zien sekula ezer esan gai horren inguruan. Conchita Medrano irakaslearen inguruko gogoetak.

144. Irakasleak umeei erakutsi zizkien giza-balioak (LEI-012/006)

Conchita Medrano irakasleak transmititu zizkien baloreak... Kultura, irakurzaletasuna... Emakumearen papera etxean, gizartean.

145. Emakumea lan-munduan parte-hartzeko saiakerak; Auzolagun (LEI-012/007)

Ezkondutuan aukera ugari izan zituen etxetik kanpo lanera irteteko. Garai batean gainera, nahiko erraza zen zerbaitetan ekitea. Arrasaten Auzolagun sortu zeneko kontuak. Emakume ezkonduen mentalitatea. Don Jose María Arizmendiarrietaren ikuspegia emakumea eta lanaren inguruan.

146. Auzolagunen filosofia hasierako urteetan (LEI-012/008)

Auzolagunen sorrera, kooperatiben harira. Don Jose María Arizmendiarrietaren nahia, emakumea lan-munduan txertatzea zen.

147. Auzolagunen sorrera; garai oso interesgarria (LEI-012/009)

Auzolagunen sorreraren inguruko hainbat azalpen. Ikastolak, apaizak, kooperatibak...garai oso interesgarria; gauzak egiteko gogo handia. Siadeco-k inkesta bat egin zuen gizartean Auzolagunen beharra zegoen edo ez jakiteko. Auzolagun nola sortu zen; inguruan sortzen zen sarea.

148. Emakumearen egoera lan-munduan; kooperatiben araudia (LEI-012/011)

Auzolagunen sartu eta inguruan sortzen den sarea. Emakumearen egora lan-munduan. Garai batean, kooperatibatan lanean zeuden emakumeak ezkondu ondoren bertatik irten egin behar ziren, legez, eta errealitate horri irtenbide bat aurkitzeko sortu zen Auzolagun.

149. Marin auzoak zuen bizitasuna; azken urteotako aldaketak (LEI-012/013)

Marin auzoa nolakoa zen. Eskolan, neska-mutilak denak elkarrekin, eta adin desberdinetako umeak gainera. Azken urteotan ez dago eskolarik. Auzoak bizitasun ugari galdu du.

150. Umetako ibilerak; eskola kontuak (LEI-012/015)

Eskolan zer ikasten zuten. Umetako ibilerak.

151. Abadeek izan zuten garrantzia auzoaren egituraketan (LEI-012/017)

Doktrinaren inguruko kontuak. Ondo ikastea derrigorrezkoa izaten zen jaunartzea egiteko. Nobenak... Elizaren funtzioa, bere ikuspegitik, jendea elkartzea izaten zen. Antzerkiak egiten zituzten. Don Ram´n Uribeetxeberria; Valentín Zamora.

152. Trenbidearen garrantzia auzoaren garapenerako; kanpai desberdinen esanahia (LEI-012/021)

Trenbidearen garrantzia auzoan. Merkantziak eramaten zituen trenak, eta trena kargatzen auzokoak ibiltzen ziren (egurra...). Intxaur-arbola handi bat kargatu zeneko eguna ondo gogoratzen du; bederatzi idi-pare behar izan ziren enborra trenean kargatzeko. Auzolanean egiteko edo auzoa biltzeko, kanpai berezi bat jotzen zen. Kanpai klase desberdinak.

153. Gasteizko feriara produktuak saltzera; baserriko neska gazteen lan-aukerak (LEI-012/022)

Eskola urteak amaitzen zirenean, emakumearen irteera zein izaten zen. Gasteizera feriara joaten ziren gaztainak eta abar saltzera.

154. Ama Eskoriatzako kaletik argindarrik ere ez zuen baserrira ezkondu zen (LEI-013/002)

San Juan zahar baserrian jaiotakoa da. Aita ere bertan jaioa zen eta ama Eskoriatzako auzo batekoa. Ama baserrira ezkondu zenean argirik ere ez zegoen San Juan zahar baserrian eta ama inoiz halako baserririk ezagutu gabea zen.

155. Baserrian ez zen goserik pasatzen: gaztaina-erreak, morokila, etxeko haragia... (LEI-013/004)

Gerra hasi eta lasterrera jaio zen. Gosete-urteak izan omen ziren, baina berak ez du horren oroitzapenik. Baserrietan egoera ez zen izaten hain txarra garia eta gaztaina-erreak izaten zituzten eta. Gaztaina-erreak nola prestatzen zituzten. Goizetan morokila eta esnea gosaltzen zuten. Beti izan dute ganadua eta txerria etxean eta etxeko haragia ere izaten zuten.

156. Larraina nola prestatzen zen garia jotzeko (LEI-013/005)

Garia etxean jotzen zuten larrainean. Nola jotzen zuten garia. Larraina nola prestatzen zuten: zopizartu (lurrari gaineko belarrak kendu) eta gero "koronaria" eman. "Koronaria" ganaduen sahasa lehortzen utzita egindako pasta moduko bat zen. "Koronaria" horrekin lurra gogor-gogor geratzen zen eta ez zen hautsik harrotzen.

157. Erratzaren eta isuskiaren arteko aldea (LEI-013/006)

Erratza eta isuskia ez dira gauza bera; isuskia "illarriakin" (txilarra) egindakoa da. Erratza finagoa da, baina isuskia latzagoa izaten zen.

158. Karea asko erabiltzen zen ortuan edo fruta-arbolekin (LEI-013/008)

Karea nola egiten zuten ozta-ozta gogoratzen omen da. Karobia zuten etxe inguruan eta aitak karea egiten zuen. 3 egunean egon behar izaten zen karobia erretzen harik eta goiko harriak zuritu arte. Asko erabiltzen zen lehen karea, batez ere ortuan botatzeko. Gaur egun ere egiten omen dute kanteretan karea, baina ez da gauza bera. Fruta-arbolen enborrak ere zuritzen ziren karearekin, inurriak ibil ez zitezen.

159. Karobia egiteko (bobeda) arte handia behar zen (LEI-013/009)

Karobia ez zen auzolanean egiten, baina laguntzera etortzen ziren inguruko baserrietakoak. Karobia nola prestatzen zen. Harriak bildu eta harriak apurka jartzen joanez, bobeda itxi arte jartzen zituzten harriak. Arte handia izan behar da karobia prestatzeko. Euren baso baten kantera bat dute eta handik ekartzen zituzten harriak.

160. Zubiaundiko kanteratik Gasteizko "Azucarera"ra eramaten ziren harriak (LEI-013/010)

Harrobi bat dute hiru sozioren artean: Zubiaundiko harrobira. Garai batean astean hiru bat merkantzia (trena) kargatu eta Gasteizera eramaten zituzten bertako harriak azukrea egiteko.

161. Gaztainadietako egurrarekin otzarak egiten zituzten (LEI-013/012)

Gaztainadiak ez dira galdu, lehengo lekuan jarraitzen dute euren gaztainadiak. Hala ere, lehen otzarak egiten zituzten bertako egurrarekin eta baita zesta puntako zestoak ere. Gaur egun obretarako otzarak plastizkoak izaten dira eta gaztainaditik egurrik ez dute ateratzen.

162. Elgeamenditik Arkamura bitarteko tumuloak (LEI-013/013)

Hiruerreketa: Deba ibaiaren sorlekua. Hiruerreketa inguruan, Elgeamenditik Arkamura bitarteko lautadan tumuloak omen daude. Elgeamendi inguruko mendirik altuena da 945 metro ditu. Aranzadi elkarteak katalogatuta omen dauzka tumulo horiek.

163. Gaua txabolan pasatu eta goizean ardiak jetzita behera (LEI-013/015)

Ardiak izaten zituzten mendian. Gauean mendira joan, basoko txabolan lo egin, ardiak jetzi eta goizean makilaren punta banatan kantinplorak hartuta etortzen ziren behera. Bere aita eta bere anaia ibiltzen ziren ardizain.

164. Ogi zuria eta "pasilloria" (LEI-013/016)

Leintz Gatzaga altu dago eta neguak gogorrak izaten dira bertan elur eta izotzarengatik. Hala ere, artoa eta garia hartzen zituzten. Ogia egiten zuten etxean. Arto-irinari bi bahe pasatzen zizkioten, lehenengo latzagoa eta gero finagoa eta ogia zuri-zuria ateratzen zen. Zahiarekin "pasilloria" deitzen zitzaion ogia egiten zen. Hura etxean ezkutuan jateko izaten zen, pobreen ogitzat hartzen zelako. Labesua.

165. Txahalak kanpoan ibiltzen ziren (LEI-013/017)

Esnea ez zuten kalera saltzen, urruti gelditzen zitzaaien eta. Hartzen zuten esnea etxerako eta txahalentzat izaten zen. Lehengo txahalak kanpoan libre ibiltzen ziren eta ez zuten pisurik irabazten. Hala ere, kanpoan etxean baino gehiago irabazten zuten.

166. Arrautzak izateko "ondokua" jartzen zitzaaien oiloei (LEI-013/019)

Oilar bat edukitzen zuten oilo guztientzat. Arrautzak egiteko "ondokua, afixondokua" jartzen zitzaaien oiloei. Trumoia tokatuz gero oilaloka arrautzekin dagoen bitartean ez omen dira txitak ateratzen.

167. Emakume bat ibiltzen zen oilaskoak zirikatzen (LEI-013/020)

Etxean ez zituzten oilaskoak kapatzen normalean (kapoiak). Gatzagako emakume bat omen zen "kapadorea" eta baserririk baserri ibiltzen zen. Lehen oilaskoak gehiago zirikatzen ziren errenteroek baserri-jabeari kapoiak eman behar izaten zizkietelako. Nola zirikatzen (kapatzen) ziren oilaskoak: arrautzak kentzen zitzaizkien. Gaur egun era horretan zirikatutako (kapatutako) oilasko gutxi egongo dela uste du.

168. Elizan bedeinkatutako sortarekin pizten zen San Juan sua (LEI-013/021)

San Juan sua egiten zen lehenago. San Juan egunean sorta bat egiten zen loreak, baratxuri burua, tipula, garia eta beste belar batzuekin eta elizara eramaten zen bedeinkatzeko. Sorta hura etxera eramaten zen bedeinkatuta eta hurrengo urtean harekin ematen zitzaion su San Juan suari gaitz txarrak uxatzeko. San Juan inguruan apaizak baserririk baserri joaten ziren ur bedeinkatuarekin soroak bedeinkatzera. San Juan kanta.

169. Dorletako Ama; inguruko ermitak (LEI-013/023)

Dorletako Ama Birjinaren irudia berria dela dio. Dorletako ama txirringularen zaindaria omen da eta Arlabandik jende asko pasatzen zelako bizikletan jarri zuten bertan irudia. Dorletako beheko arroan ermita bat omen zegoen (San Antonio Abad eta Padua). Ermita hondatzen joan zen piskanaka eta santuak ere kendu egin omen zituzten bertatik. Inguruan San Martin ermita ere ba omen dago. Dorletako amaren inguruan jendeak lore asko uzten du.

170. Inguruan badaude oraindik pago eta haritzak (LEI-013/026)

Beste inguru batzuk asko aldatu dira, gaur egun pinua nagusitu delkao, baina Gatzagan elehngo basoak mantendu dira. "Tantaiko laua" deitzen zaion lekuan haritz ugari daude eta beste aldera ("Otzaibide" aldera) pagadiak. Hala ere, "Hiruerreketa" inguruan pinua nagusitu da.

171. Gurutzebidea, hildakoak eramateko bidea (LEI-013/027)

Gurdiarekin eta idiekin joaten ziren garotara, gurdi gainean jarrita eta abestuz. Gaur egun traktorearekin ibiltzeko lehengo bideak galdu egin omen dira. Duela 20 urte inguru egin zieten oraingo bidea, baina aurretik "Kurtzebide"-tik ibiltzen ziren. Bide hori hildakoak eramateko bidea zen eta Gatzagaraino doa. Beste inguru batzuetatik beste "Kurtzebide" bat izaten zuten. Bide hauek gurutzatzen ziren lekuetan gurutze txiki bat egoten zen eta hara iritsitakoan "pater noster" bat errezatzen zen. Hildakoak bizkarrean eramaten ziren.

172. Eguraldi txarra zenean edo baserrian lana zegoenean piper eskolatik (LEI-013/028)

Eskolara joaten zirenean oinetakoak edo arropak aldatzeko puntu konkretu batzuk izaten zituzten. Beraiek familiakoren baten etxean edo "Ospitala" deitzen zitzaionean aldatzen zituzten. San Joan zahar baserritik ere Gatzagara joaten ziren eskolara urruti egon arren. Eguraldi txarra zenean edo baserrian lana zegoenean ez ziren eskolara joaten. "Intxaurran" egin behar izaten zuten (idien aurretik jarri idiak zuzen joateko). "Artaria, burdinaria, [graria] eta trillua".

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2024-04-03

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com